



EUSKAL TESTUAK

Manuel Larramendi

Iturria: *Manuel Larramendi. Euskal testuak*, Manuel Larramendi
(Patxi Altunaren eta Joseba Lakarraren edizioa). Andoaino Udala, 1990.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LarramendiTestuak.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

SEI OLERKI

Euskara

Errege bat Zerutik
Madrident agertu-zan,
Nola noizbait Aingeru
Eder bat gertatzen-da.

Elurrez, ta karminiez
Edertzen aurpegi-a
Perlak, ta rubiak ere,
Nork geiago zebiltzan.

Zuen isurtzen galanki
Txit argizko itsaso bat,
Zergatik Zeruko gauzak
Ez oi datoz bestela.

Gipuzkoan goraturik
Mendiak euren gañean,
Bera ikusteko luzatzen
Zuten lepo gogorr-a.

Jakiñez, piztutzen zala
Lengu urrezko edade-a
Geldituko ezta nigatik,
Zion mendi bakoitzak.



Naizuen mendi edozeñek
 Potosi bezala izan,
 Ez nai burni-a Emanik,
 Baizen Ofirko urre-a.

Baña Zeruak goizegi
 Dio, Luisez asko da,
 Bada Errege agertu danak
 Iraun du asko lurrean.

Esferak eraman digu
 Ganbara urdiñ artara;
 Ez ta ikusten; baño agitz
 Sentitzen lajutzen da.

España illunbean dago,
 Nola eklipse zikiñak
 Egerdian kentzen dio
 Eguzkiari argi-a.

Nola dan ikusten maiz
 Soro eder, loredun bat
 Ipar eri gaitzarekin
 Lore gozoen obi-a.

Burni edade-a berriz
 Dator zori gaistoan,
 Urre-oriak kendurikan
 Burnidun anz illunak.

Zeruak erakasten digu
 Ezin bizi direla
 Ondasunak luzaro,
 Ezpada euren errian.

Amardun

Baldin bada zeruan
 Jaten usakumerik,
 Ezin lizake oberik
 Auxe baño an ere jan.
 Ha zer usaia zeuan!
 Hil bat lezake piztu,
 Ezen ez ni sendatu:
 Zer? uste-det, Aingeruak
 Ziradela gosetuak
 Usakumez zaletu.

Amalaudun

Nor, goi Lenen, izan da, garr-ori
 Piztu debana? ausartzi, edo onesgun?
 Ausartzi; ordea fiñ: onets, indardun.
 Amodio ausart zan, ta onesle-usartzi.

Etzeban aberek uste egotzi
 Zeure ausartzian zerbait izigun:
 Zegokan gustu bati (etzan mindun).
 Zure onesgun txingartzen zanari.

Auxe, eskutagai zeure Esposaren.
 Garturik irten zan ain biziro,
 Non arrai bati da berdindu.

Ta tximista ain bero oni, zeñaren
 Polborak, mirets danean luzaro,
 Balaren indarra zion fidatu.



Amardun

Jauna, egin eder orrez
 Zori on zezenari,
 Lun-erdiak dituenari
 Illargi betezko ohorez.
 Zerura argitasunez,
 Artizar berri doake,
 Dala egjazko asnase
 Oi zegoena hilgunaz;
 Ta Maiatzaren lotsaz
 Otzaillaren Signo obe.

Beste bat

Ain kartsu bizarria,
 Jauna, etzenduenean
 Anim-erdi baizikan,
 Esposan beste erdia?
 Baldin esku ausartia
 Ala garai bada erraz
 Basotiaren indarraz;
 Zer izango da, ikusi
 Bazaitzagu armez janzi
 Anima oso guziaz?

Beste bat

Ez naiz, Jauna, ikara egon,
 Ikusiaz, zezenari,
 Ausartziak, izenari
 Ohoreak tiratu dion.
 Hiru bostgun, ta ain gizon?
 Ez naz miretsi; zerren
 Igazko Españan, emen
 Ler badeza esangiak,
 Dakusa oraño etsaiak
 Dirala Fernando aurten.

«EGUNAROTIEI» AGIRIKA

1745, *Hiztegi Hirukoitza*

Euskaldunai osasuna

Uste deu gure urliak (aditzen nazue, nori nagokan, begira, ez ni salatu) badakiela dana, ta datekean guzia, onako Latíñezko zerrenda batzuek irabiatu dituelako. Aññ arro dabill, aññ da bere-buru, aññ berez, ta bere buruz betea, ta uanditua dago, non dirudien, iññor ere eztaukala ezertan, naiz dala aundi, naiz txiki. Euskara da, gaitzik egin balio bezala, aren erabea, eta sayetsetik Euskaldunak ere bay. Itsuen gisa joezak emen, joezak or, bere ustez zeatzen, zatitzen, banatzen deu gure hizkuntza eder, guri, gozoa. Iññarusi bear genduke guziok hizjario erausle motel au, ta onen lagun irurazayak. Ondo balegokit, nik astinduko nuke, nik beeratuko nioke bere andiustea, ta bere galdor kiskur, luzea. Niri eztagokidanean, beste Euskaldunen batek itxeki bear lioke sail oni, iññon diraren etsai hitzontziak isiltzeko. Baña ez bide du Euskera gaisoak, are bere etxapean, ez seme, ez adiskide biotz onez nai dionik: ta argatikan daude guziak aññ geldi, aññ isill, eskuak tolesturik, naiz beztu ta itxuzkitu dezatela, naiz darabiltela oñen azpian.

Badaraskio bada gure sandiari, ezen eguzkiaren jayet-aldean diraden hizkerak dakitzan batek, erraz adituko duela Euskeraz; ta gezurtxo batekin hori sinisterazo nai izandu digu. Uztak arren onela nagokian. Len amakia egin diguk gure hizkuntza, ta orain alabakia, beññ txuri, ta gero beltz: noiz utziko dek buru-koloka farragarri hori? Edo bata esan bear dek, edo bestea: eta esanari elakio zabuan ibilli bage. Ona non dituan Euskarazko hitzak naroro: naibadek, oa, ta eguzkia sortzen da aldetik erakark nai deana. Esayok, begira ditzala hirekin batean, naiz aurkez, naiz atzez, goitik, betik, zearka, edo zuzenka, ezтик berdin idoroko bere erriko hitzen antza deuanik, ta are gitxiago igerriko, itsuka bada ere, zer esan nai deuan. Eztanda badagik ere, gure Euskera ederra lenbiziko hizkuntzetatik dek, arako Jainkoak maneatu, ta isuri zituan ayetatik, ez beste hizkuntzadeen naspillatik sortua. Euskara dek Españan lenengo sartu zana, ta aren bazter guztietan era batean, ta luzaro txit, hitzegin zana. Zartu dek, atso-tu dek (eztek hik hau Erderaz esango); ainbeste urteren epean atsotu bear: baña itxok, oraindikan bizkorra zeagok, gaztetzera zeak, bazeakik



bere burua txukunkiro edertzen, galantzen, apaintzen. Eztezaala beraz uste, hire esan mesanakin, hire lotsageriakin ikaratuta txokoratuko deala Euskera. Utzi diozagun Mayansi, jakiundeko mayan janari onik ifintzen eztingunari, ezpada lapiko ustelbat, arbiz, azaz, txongoz, birikakiz, hitz batean, zadura baduraz betea.

EUSKALDUNEI BATASUN ESKE

1754, *Corografía de Guipúzcoa*

Eztakit zer esain dizutedan. Aspaldi nabil nola Euskal Erriak edertu, ta jasoko ditudan. Bost gau illun, eta bost egun argi iragoak ditut, egiteko onetan; baita gure euskera, izkuntza guztien zarrena aien garai nola ezarriko dedan. Baña ezta sinistekoa zer gertatzen zatan. Batzuek diote bestelako lan txarretan nabillela. Ezta ezer; oiek jakiñezak dirade, zer darauskioten ere ezta kitenak. Besteak obeko nukeala itxegi beargai goragoren ta ederragoren bati. Ezta anik: oiek alperpotzak dira berok, ez gorago ez berago dan lanik ukitu ere nai ez tutenak. Elakio hitzonzia, beargai txar diokan horri, ta ara ni itxekiko natxeok prestuagoari. Ainbeste urtean neabile ezagutu naiez gure hizkuntza miragarriaren txitezkoak, ta etzeatiet oraindikan osoro ezagutu; ain dek beargai au andi, larria. Eta lotsatzen ez aiz hi ta hire lagun oroitzar horiek, lan txarra deitzea lanik gaitzen ta latzenari? Hi ta hire ballerakoak besterik ezpaliz mendarte oietan, euskeraren saietsetik euskaldunok galduak, baita tuak ere gindukek, erdaldunen bekaitzez ezin ekusiaz, ta juzku gaiztoz. Baldin elkar artzen bagendu guziok, nor bere sallari ditxekala, Franzian ikaratu ko gintuke franziar guziak, ta Españian españiar guziak. Non da ordea elkarte hori? Nagokan isillik. Nere min garratzena da, are ezta kuzkula onetatik darraizkun kalteak eta gaitzak; era, dirudienez, ezagutuko ere ez titugula, ditugun on piskak galdu ditzagun artean.



«EZ GAUDE... UZKIA IÑORI GARBITZEN OITUAK»

1757, *Sobre los Fueros de Guipúzcoa*

¡Bizi bedi Jaun done Errege gurea, bizi bedi, bizi anitz urtez, bizi dedilla urte askotan, bizi dedilla. Esker ta esker milla onelako aita ordeari, bizi bedi milla mendez. Betiko pakea Fernandori. Bizi ta bizi bedi. Betiko osasuna Fernandori; bizi dedilla ta bizi. Betiko kemena, errua ta indarra Fernandori, bizi bedi ta are bizi. Azpira zaizkitzu, Jauna, esaiak. Bizi bedi. Ayena zaizkiotzu, o gure Jainko andia, ayena zaizkiotzu lausengari sabel zuriak. Bizi bedi ta are bizi. Gerta zaizkiotzu mirabe ta aldamen menak, bere biotzaren erakoak. Bizi bedi. Idukazu zure eskupean, ta bizi-ko da, amen, biz ala. Erabilli ezazu garai zure egalen kereizean ta biziko da, amen, ala biz ta bizi dedilla. Eta ezer egin da? Ah, Gipuztar eskergabeak!

* * *

— Deabru etxera ta bidera! Orain datozkigu orrekin, leuntza dollor, txatar ayek? Burla ta iseka oriek, eta guri? Nork ordea? Autsetik arestian odeietara diranak, eta biar goitikan amildu ta, autsetarako diradenak? Aurren batzuek algera, ta aurr motel, negartiak, txitxia ta paparekin engañatuko gaituztenak? Ordu gaistoa ayentzat, ez gaude gu aek bezala uzkia ñori garbitzen oituak. Argitara bedi Errege Yaunari ikusi eraso bear dan gogoangarri hori; ta jakin bezate txiki ta andi munduko bazter guzietan zer mutil zuzenak edo zer tresna biurriak dabiltzan Nagusiaren inguruan.

* * *

Eta arren obeago ote da, orañago ikusi diotegun bidea, eragozten eta gelditzen dituztela bazarre lenagokoetan agindu diranak, zeinien ustean ta zai zeuden Hiri guziak? Asmatzen dituztela errazbageak, sortzen naspillak, isurtzen egiezak? Ta au zertako? Errege-konseju nagusiaren buruak agin-dezan, ta au are debeka-dezan, Hiriak elkarganatzea ta bear zan bezala biltzea, aalik balu ta iñoiz izandu baleu bezala, Fuero

gureak ematen digun eskua kentzeko ta itxitzeko bidea? Baña zergatik orrela dabiltzan berak dakite; baita beste guztiok ere badakigu! alabañan agerian zebiltzan. Eztali bear, ez bear; eztali nai, ezkuta ezin zitekeana ta Gipuzkoari zekarrena bidegaberik latzena ta miñena.

* * *

Argatik Azpeitikoan erabaki zan, Hiri guziaz eman zedilla kontu, irundarrak billatu ta arkitu zituzten egiteko egiazkoena. Baña orduan bertan junta etzidin batzarrerik, asmatu zuen aitzakia hortik, luzagarri emendik Madridaño joateko eta Konsejuaren gobernariagandik ateratzeko, iñon ere ez batzarrera biltzeko agintea; alegia biltzen bazan, arazo andiak, jaiteak eta auziabarzak izango ziradela; zeña zan egia etzana; eta egia etzanean, zer ote zan? Badakite bada orrelako aginteak eskatzea, ta erakartea dala goitikan bera gure fueroa austeia; eta eztirala egin bearrak, baizik utsik obeditu bearrak. Badakite, ez gobernariak ezen ez eta arekin batean bere bilguma osoak ere, ezin kenduko digula fueroak ematen digun eskua, libertadea ta bidea. Zer egiñen degu bada? Adiskideak goitik, lagunak betik, bearko ditugu noizbait; zinzilika bezala gaude bata besteagandik. Orain laurgitu dezagun, gero osatuko degu fueroa. Zori gaistoko buru, naskarriak!



EUSKARA BERRIAREN «CARTA MAGNA»

1747, *Jesusen Biotzaren Debozioa*,
Sebastian Mendiburu

AITA MANUEL DE LARRAMENDIREN KARTA LIBRU ONEN EGILLEARI BIDALDUA

Aita nerea, badakit, eta hori aspalditxo da, arazo andietan zabiltzala, argitaratzeko liburu bat, Jesusen biotzarekiko debozioari dagokana. Jakiñ ez ezen, irakurri ere badet oarrez ta arretaz zure eskuskribatua: eta ikusiaz ta erabilliaz, are geiago ezagutu det lan onen anditasuna. Gayari banagoka batetik eta bestetik hizkuntzari, baderitzat, gezurtatzen dituzula Erdaldunen ta Euskaldunen usteketa txarrak, ta desegiten ta ayenatzen guzien lausoak ta lilluramenduak.

Ona non dezun gaya, munduan dan kontuzena izatez ta egokiz erabilli bear dana: baña zeñiñ ere dan goi, mee, ondatsu, ala oi darabilzu, aiñ aisa ta itobagez, beste esku-arteke beargai errazen bat baliz bezala. Ez alzaitu antusteak amilduko. Eztezu hau zerez: Jainkoaren doaya dezu, noiz ta nori nai duen ematen diona. Etzinioke aiñ argi ta garbi saill oni ekingo Jainkoak eman ezpazizun Jesusen bihotzarekiko dezun jayera hori, ain bizia ta sutua. Ark erakusten dizkitzu gay aundi onen sayets guztiak, ark egoki santuak, ark ekarra ezti ezti, gozo gozoak, ark gizonentzat debozio oni dariozkan Zeruko ondasunen iturburuak. Hitzetatik agiri dezu nola dizekan zure biotzari, ta eztauskiola mingañari, barrunbeari dirakiena ta gañez dariona besterik. Oyez gañera etzaitu izutzen nekeak, minberakor ta alper txarrak izutzen dituen bezala: ta orregatikan, ayek ezbezela, garaitzen dezu, lautzen ta menderatzen.

Bestenaz banagoka zure hizkuntzari, len ere baño obekiago dakust alde oyetako Euskaldunen itsumendea, zeñean darasaten, eztala gure Euskera gauza andi, mee, goi diranak adirazteko. Ona bertan guzien gezurtamena, zure liburu Euskeraz ain garbiro moldatuan. Esan biezat nork nai, zenbat zor dioten zure Euskera onek, beste hor dabilzan hizkunderen naspillai? Esan begit, zeñetan Jesusen biotzarekiko debozioaren gaya obeto, ederkiago, gozoroago berezia dagoan, zuzendua ta apaindua? Gayak berak ezti du, ta alderdi guzietatik ezti dario; eta arrezaz hitzegiteko ezta munduan gure Euskera beziñ hizkuntza itsaskorrigo, eztiago,

gozoagorik: ta egia onen ikusbidea zure liburu hau izango da. Bañan lenbiziko sayoak onelakoak diranean, esan biezatet, gerokoak nolakoak izango diraden, ikusiaz, ekiñaz, landuez, aterako diranak?

Eskriturak nonbait diona da «aurtxoak ogi eske zeuden, ta etzan nork puska ziezaten»: ta oraiñ ere auxe bera esan dezakegu Euskalerrientzat; bada Jainkoaren hitzaren ogia txikitu bageaz, sekereak igartuak bezala, goseak hilzen daude asko ta asko. Zer bada? eztabilza gure Eleizetan Predikarioz franko? eztaasate surmurrez ta deadarrez Zeruko jakinbidea? Egia da, badabilza ta badarasate. Ordea zer da ansi, enzunle geyenak erausi hura aditzen ezpadute? Sinisterazo nai digute, aditzen dala Gaztelania, are ikasi ez dutenen artean. Ezta hori egia: alperren erausiak eta aitzakiak dirade: hitz banakaren batzuek adituagatik aizeak daramatzi besteak, eta Jainkoaren hitzaren ogia gelditzen da Euskaldunentzat txeatu bagez probetxurik gabea. Baña egia baliz ere, ezta lotsagarri hitzegin bear digutela Euskaldunak Euskalerrietan, ez guziok dakigun hizkuntzan, ez gure erriko, gure gurasoen hizkuntzan, ez bularrarekin batean edoski genduen ta lenbiziko ginekien hizkuntzan; baizikan Gaztelauen hizkuntza arrotzean? Siñis nazazu, ereille gaistoetan dago azaro txarra, eta gero uzta soilla ta utsa. Alabañan gutxik daki bere jayeterriko Euskeraren erdia, eta alperrak diraden bezala, eztute ikasi nai geiagoko, ta ezti nai beren buruai atsekaberik eman. Baña onetatik zer gertatzen da? Dakiten piska arekin, hitz moltxo, eskumen baten diña eztan arekin nola eziñ adierazo dituzten beren esakariak, badarasate pulpitan hitzera naasi bat, beñ Euskera, beñ Erdera, beñ Latiñera, guzia lenda-tua, zikindua, baraustua: zeñean dirudien, igo dirala gaiñ artara enzule guzien burla egitera: ta arritu oi naz, nola asko ta asko, bulzaka ordu gais-toan ayentzat, botatzen eztituzten andikan bera. Are gogaikarriena da, txarlari oyek ikustea ta aditzea, nola dauden isekaz ta musinka Euskeraz ederki dakien jolasari, beñ Nafarroako *minzoa* dela, gero Bizkaiko *berba donga* batean *ausaz ere* Goyerriko hizketa dezula, bestean *noaskiro* Beterrikoa; atxurlarien ta nekazarien hitzera dala hura, baserritarra dirudizula, ta milla onelako astakeria. Eztute izen obeagorik merezi. Ayenatu bear ginituke gure hizkuntza ederra galtzen diguten hizjario motel txarr oyek. Oraindik eztazute, Euskaldunak Euskera duela gauzarik onena ta honragarriena; bada ari ditxekala, beti agertuko du bere burua, dan bezala, España uts utsa, anziñakoen ta are lenbizikoen etorkia ta ondokoa, ta beragatik nastebagea, garbiena, fiñena ta nobleena: dakiela, nondik ta noizdanik datorren: zeña dan Euskaldun-ebak, itsuka baizik ezta kitena, ez eta jakingo ere.



Beste batzuek dituzu, gure Euskeran nai ez lukeenak beste hizkuntzetatik hitzxo batere: eta onen bidez epaiten ta ziatzen bezala dira jolasean. Bedereko ergelkeria! Etzaitela zu malmeti. Euskerari eratxi zaizka Gaztelaniatik, Latinetik edo beste hitzkundeetatik hitz asko; baña adituaz ta oituaz, Euskerakoak bezaiñ ongi aditzen diranak, eta oyek utzi bear eztitugu. Ta bearbada noiz edo berriz obeko da onelakoak usatzea Euskerakoak baño: batezere Eliz-gauzetan ta gure arimen salbazioari dagozten egikarietan. Lajatuko ditugu erbesteko hitz horiek, nai badegu, gure Euskerarenak piskabana usatuaz ta erabilliaz, eskukoi ta jakiñiak egingo diradenean. Ongi egin dezu Nafarroako hitzen batzuek ekartzea, egoikiak diranean eta besterik ezthanean: Zerren lenbizian, ta batbatetan aditzen ezipadira, aurki adituko dira, ta geyenak dagoaneko aditzen ere badi-ra: ta ala Euskera bide batez edertzen ta ugaritzen da.

Etzaitzela tontotzarren erausiak ozipindu ta ikaratu: ez dirade jendartekoak, ez kontuzkoak; hitzera ona, beardanezkoa zein dan, eztezu ayetan aurkituko, ezta billatu bear ere. Bazterretan, ta itsu, motel, jakiñezen artean darauskiote, baña eztira gai, ezer ere danik agertzeko ta argitaratzeko. Zer degu, astoren batek edo bestek esanagatik, eztala onelako hitza emengoa, edo estuela aditzen? Nafarroan *hirri*, Bizkayan *barre*, *Probinzian farra* egiten zayela onelako ta alako hitzen batzuei? Suertez ere neurri ederra genduke hizketarako, besterik ezipagendu. Gizon zuhur, zintzo, menak eta jakintsuak gure alde ditugunean, eztiugu beste jendalla horiei jaramon bear, ez eta ayen esan mesanaz ajolarik artu.

Ekin bada, ekin, Aita nerea, Euskerari, ta Euskeraz itxeki Jainkoaren darabilzun lan oni. Uste dezun baño on geiago egingo diozu Euskalerrari; zeñean hizkuntzaren naasiaz ta aditu bageaz ozta jakiñ oi da bear dana, ta hiztunen ergelkeriaz ta aroikeriaz ozta aditzen degu naspilla ta Ijituken marmariza besterik. Kanporatzen ditut neronek aditu ditudan batzuek, argi ta garbi mintzo diranak, ta Euskerari beren on etsiari bezala darraizkanak. Erein dezu Jesusen biotzarekiko jayera Euskalerrietan; erneko da, zorituko da, ta bilduko dezu iñon ere nerekiko bildu dan uztarik ederrena ta ioriena. Sekañetan biziagatik, Euskaldunak eztira sekañak, erriberak bay, lubera gozoak, beti giro onean daudenak, Euskeraz kontuz ta moduz egozten zayen Jainkoaren hitza ar-tzeko, gordetzeko, azitzeko, ta eunetan anbat emanarazteko.

Aterazazu beraz zure libru hori, eta len baño len bana-ezazu Euskalerrietan; batezere non eta Jesusen ballera santuak jaso dituzun, ta lenago jasoak zeuden. Irakurriko dute ala Eleizetan nola etxeetan, eta Euskeraz utsik dakitenak ta Gaztelania arrastaka baizikan eztakitenak ere,

naiko dute beñ baño geyagotan aditu, ikasi ta gogoan sartu hitzez predikatu ziniena ta oraingotz bearbada azturik daukatena. Onela Biotz maitagarri haren landatu dezun amodioa ta jayera, geituaz, andituaz ta sutuaz joango da. Ala biz, ta ala izango da, gizonen biotzak bere eskuan dauzkan Jaun hark betetzen badiu bere bildurrez, bere amodioz, bere grazia egillez ta ugariz. Nai dakiola bada oraiñ ta beti, guziok beregana gaitzan artean. Agur, Aita nerea, ta gogoango al nazu zure otoitzetan.

Loiolan, Martxoaren 15. egunean, 1747 urtean

Zure serbitzaria biotzetik

JHS

Manuel de Larramendi



«ESKARA GUSTIOK DODAZ MAITE...»

Agur, Gandara Jauna, ta osasuna:

Ala asi oi ditut nere ezagunai ta adiskideai bialtzen dioztedan kutunak, anziñako erromatarren gisakoak: *Ave, Domine Gandara* eta *Domino Gandara, salutem*. Agur eder *hau* da latiñezko *Ave, Salve, Vale* oyei dagotena, eta euskaldun geienak eztazautena. Españarrak, Franzesak, italiarrak beren hizkuntzak dituzte, latiñetik jalkiak, eta ala ere eztute hitzik *Ave, Salve, Vale*, ondo esateko danik. *Dios te salve, Dios te guarde*, esaten da *Averen* ta *Salve-ren* ainbateko edo ordaintzat Ala gaizki. Aingeruak etzion Birjiñari Jainkoaren izenik aitatu, *Ave gratia plena*, Agur graziaz betea, gure beko errietan esaten dan bezala, eta Franziaiko euskaldunetan ere bai. Aurki onen gañean ondatu uste ditut Gaztelau guziak, zerren eztakiten *Ave* au bear dan bezala. Jainkoak salba zaizala, guarda zaizala. Zer bada? Kondenatzeko bidean dago? Galtzeko perillean dabil? Goardabearrik badeu etsai gaistoetatik? Ken guri itsusiketa oriek! *Ave gratia plena*: Ona garbiro ta ederkiago: Agur, graziaz betea. Orra bada zergatik: Agur, Gandara Jauna, Giputz labaiña, dirudizuna, lausengaz ta txuriketaz apaindua.

Beste ainbeste, ta alako kutunik zurea bezalakorik, iñork ere eztit egin Bizkai alde ortatik; Gipuzetatik ere gitxik. Lo daude erne bear duten guziak, sorrak eta gorrak, otzak eta motzak, motelak eta gatzikbageak dirade. Madridtik, Paristik eta beste erriaietatik, Jainkoak daki jakintzu andietatik zenbat alabanza izandu dituzten zuk or dituzun liburu oriek, Trevouxko Memoria famatuetan antxe datoz atereak eta isuriak Euzkerearen alde esan ditudan guziak, aitortzen didatela guzietan arrazoia, baita gure hizkuntza dala besteak baño ederrago, obeago, gozoago, eta ona non gure etsai zital guziak arriturik isildu diran Madridenten ta Parisen. Baña Euskaldunai egoki edo arriari ainbat dezu, eta onetxek sumindua nauka ezin geiagoraño.

Irakurri ditut Gabon kantak, eta azkenean paratu diotet *imprimantur*, ain daude ederrak, gozoak, kilikorak. Etzaitela aurrerako nagitu, ez alper-tu; itxeki saill oni, molda itzatzu orrelako asko ta ugari esna ditezen lotiak, eta urte osoetan ezer danik egin bage bizi diranak. Ordaña bialtzen dizut Azkoitian aurten kantatu diranak, musika kilikorr batean, Peñafloidako Kondeak egin dituenak, eta berak musikan paratu dituenak.

Ni hirurogei ta amairugarren urtean sartua nabil, zartu naiz, ez ordea oraindikan elzartu (txotxotu, kaduko): burua daukat soilla, baña fresko ta sendo, aurpegia zimurrik bage, aoa ortz [guziarekin] ederrakin, kolorea zurigorri ederrarekin (ala esan oi didee nakustenak); eskribitzen aztu etzait, eta ardorik iñoiz ez, beti ura edaten dedala. Orra, pintatu nai banazu, nere antza. Aspaldiko urteetan ekin diot nere euskeraren bear, ta lan oni; eta zerbait argitara ezpadet, gure Beltxok ainbeste etsaiez ikaraturik, bidea itxi didate; idiki dediñean, botako ditugu kalera. Hau nai dezu, eta hau esaten didazu. Nai dakizula bada beste edozein gauzetan agure oni zertxoren bat aginduzea, ikusi dezazun ez agura modrolloaren gisa, bai zaldun gazte baten legez obedituko deutsudala. Orra, bukatu dot kutun nekagarri hau zeuben eskarako berbeagaz. Eskara gustiok dodaz maite, ta gozo!

Agur, Loiolan Urtarrillaren 23 ta 1763 urtean



OTOITZ BIREN ITZULPENAK

—I—

Jainko miserikordiosoa, indazu arren zuk nai dituzun gauza guziak nik ere gogotik nai izatea, zogiro billatzea, egiazki ezagutzea eta oso ta oro betetzea, zure izen santuaren alabanza ta gloriarako. Zuzen zadazu nere bizi modua eta nik egitea nai dezun guzia, egizu lendanik jakin dezadan, baita egiñ ere bear dan, ta nere animari dagokan bezala. Nere Jauna ta Jainkoa, arren egidazu grazia, munduko atsegiñetan ta atsekabeetan falta eztezadan, ez ayetan goregi, ez oietan beeregi egin nadin. Ez nadilla ezetzaz poztu edo mindu, ezpada zugana naraman edo zugandik kentzen nauen arzaz. Ez nadilla bildurtu zuri besteri gaitzesteaz, ez eta nai ere zuri besteri ederrestez. Txatar dakizkidala iragankorrek, eta maitagarri zure gauza guziak, ta areago zu zerori. Gogoan jo nazala zubage dan gozoak, eta zure kanpoan danik eztezadala desea. Azkenik nere Jauna ta Jainkoa, indazu arren, ala zure ongitez balia nadin lurrean, zeñean zure atsegiñez goza nadin gero zeruan. Ala biz.

—II—

San Kasimiroren Birjiñarekiko jaiera hizketa eta erregu biguñez betea

Egun oro Mariaren, nere anima, arren alabantzak esaitzu
Beraren jai ta beargaiak, pozik gogora-itzazu
Ikusazu, mirets-zaite, aren garaitasun osoaz
Esazu, begi doatsu Birjiña zori onekoa

Onets biotzetik bekatu petik atera zaitzan.
Dei zaiozu bizioen ekaitzak onda-etzaizan
Badakit, Ama Birjiña bere diña eztuela iñork alabaten
Ala ere ero date aotan artu bage daukana.
Au guziak bereiskiro amatu, ta laudatu bear degu

Oni gurr ta erregu bear diogu betiro.
O! Zu andre guztien ohore ta edertasuna,
Badakit ta naidet txit, guziak gallentzen dituzula.
Aditzazu biotz beraatia, biziro dagozkizunak alabaten
Obendunak garbitu, ta zeruko ondasunen diña egitzitzu

Agur bada, Birjiña, zeñaren bidez zeruko atea zabaldu zaizkun
Etzinduen suge zarrak, ez kutsatu, ez erakarri
Zu zera anima erorien altxagarri ta konsolagarri
Gaistoen estutasun etorkizun dan artatik atera gaitzazu
Nigatik eska ezazu, betiko soseguaz goza nadin

ta beti dizekan leiza zuloan onda ta erre ez nadin
Izan nadin kasto, garbi, modest, otzan, bigin, sobrio,
samur (pio), zuzen, oartia, ez birakor, bai bakun
Beraa nazazu, ken auziak, laszibia ayenatu
Gaiztakerien kontra zu nere ihesleku indar egoki, fermua.



AZKOITIKO SERMOIA

Azkoitiko Parrokian 1737. urtean.
 Birjiñaren izenaren egunean
Stabat iuxta crucem Jesu
Mater eius. Joan. 9.

Zeruko amabi signoetatik iraillean, gauden ill onetan oi degu Libra, edo balanza deritzan izar pilla bat (alakoai derizte Signoak zeruan); hipuy-nak diote, ezen beñ batean Justiziak lurrean lekuri arkitzen etzeuala, gogaitu ta iges igo zala zerura, ta ifiñi zeuala bere bizitza balanzaren etxean. Ustekabea dirudi onek; baña da gauza bat egungo ebanjelioak dionari ederki dagokana. Esatendigu, Birjiña guziz santea dagoala zutik gurutzearen ondoan, *stabat iuxta crucem Jesu mater eius*: ta eleizak dionez, gurutzea da bere beso biakin balanza bat, zeñean pisatu zan Kristoren gorputza, *beata, cuius brachiis pretium pendit saeculi: statera facta corporis, tulitque praedam tartari*. Alde bata pekatuz beterik, infernuraño jaxia zegoan, artan ge[un]dela Adanen hume guztiok. Etzan gizonen artean lurrean, ez eta zeruan aingeruen artean, hura jasotzeko diña pisurik, ta indarririk: ain da astun, ta ikaragarri pekatua. Argatik Jainkoaren semea, guk ezer merezi ez genduela, gizon egin, ta jarri zan balanzaren beste aldetik: eta nola zekartzien Jainkoaren indar guziak, jaso ginduen zeruraño, geuntzan leizetik, jaisten ta ondatzen zeuala bere burua, il ta lurperatu zanean. Artarako bada nere iritzian dago Birjiña gurutzearen ondoan zutik, balanza au eskuetan deuala: ikusi dagigun Adanen humeak, nolako Justizia egiten dan, ez pekatarietan, bai gure pekatuak bere kontura artu zituan batean, bai Jaungoiko-gizon, pekatu bageko, Birjiñaren seme bakarrean. Gaur bada hitzegin beardegu Kalbarioan (ta gurutzearen ondoan) bageunde bezala, balanza au bere eskutik kentzen diogula Birjiñari, ta artzen deuala bakoitzak bere eskuan pisatzeko aldebatetik Birjiñaren miñak, ta samiñak, damuak ta doloreak, bestetik geren ajolakabea, ta ardurabagea, eta zein esker gaistokoak geraden.

Zer da au, esango dit norbaitek, Birjiñaorrek izenik ezteu, beñ bederik aitzatzeko? Eranzungo digot gaur bear genduela izen orren eguna: baña ez egunik idorotzen dedala, ez eta Birjiñaren izenik gaurko ebanjelioan. Berriz ez bide dira ondo elkar aditzen Birjiñaren izena, ta Birjiñaren doloreak, eta orregatik alde eragiten zaka gaur izenari. Nik esango det zer

dan. Birjiñari deritza *Maria*, ta izen au da alde batetik ezti, gozoa, ta adierazotzen digu Jaungoikoaren ama bere aunditasun ta doaiñ guziakin: besetik da miñ, garratza, ta adierazotzen diauzku Birjiñaren doloreak, zergatik ainbat da *Maria* edo *itsaso miña*: baña zerez mindua, ezpada oñazez, atsekabez, damuz? Orain bada ezti gozoa dan bezanbat, kanporatzen degu gaur Birjiñaren izen au: miña ta garratza dan bezanbat, betor ta bego: eztagoka besterik gaurko egunari. Aldera gakizkion bada gurutzeari ta Maria Birjiñari.

Baña zer da hori Birjiña guziz santea? zer esan nai digu zeure aurpegiera damugarri orrek? Zerentzat dezu soñeko gaua dirudien hori? Zer egin da zeure begien gozoa? nora joan da zeure arpegiko edertasuna? non ezkutatu da zeure kolorearen naste txurigorri preziatu hura, edo nola dago aiñ itsuski ubeldurik? Oraindaño esan oi zideen, zeu ziñala arako zeruan beñ batean agertu zan señale aundia, izarrez burua, illargiaz oñak, ta gorputz guzia eguzkiaz janzi, ta ederturik zeukana. Eta badakust utsegin zeueela. Ezperen non zerate esker gaistoko izarrak? Oi eta atera albanegiz beren lekutik Señora oni beardanezko koroe bat egiteko! Non zera, Zinthia, illargi aldagarria? Oi eta albanegi oñazpikotzat ezarri aren oñazpian! Non ote zabilta oraingoan bederik ezagera bageko eguzki itsua? Oi eta zeure argi-errañuetatik epaki albanegio geure Ama mindun oni manturik ederrena! Orrela egon bear deu Birjinarik gozoena, miñez, damuz, ezpataz ene biotza josirik?

Eta Ama maitea, atozea, non da zeure aurra, Jaungoikoa dan hume txukun, polit hura? eztaukazu besoetan, eztaramazu eskutik, eztezu alboan, ez begien aurrean. Non da zeure seme bakarra? non zeure argi, zeure asnase, zeure bizia? Ote da gurutzean dagoan gorputz itsusi beztu hura? Oi eta hori orrela baldin bada. O zein ur ta samur jarioko zaizkan negarrrak bere begietatik geure erregiñari! o mokadera, lienzo txuri alako negar tantaz bete ta uanditu ziñatenak! nork emango liket zuetatik bat nere ezpañak ukitzeko ta Birjiñaren negar inozenteakin, gaitzbageakin, nere negar pekatariak nastutzeko?

Zein dan latz eta gogor nere egungo bear gaya! ezin hitzik egin dagiket graziak ezpadit laguntzen: ta ezteu hura billatzeko nora nere burua irauli! Belauniko Birjiñaren oñetan jarriko ote naiz? baña zer esango digot, oñazez, damuz, miñez gañez egiñik badago? Graziaren eskatzeak gogoratuko digo bere dolore guzien asiera ta jaiotza, ta eztirudi ondo, nik aren miñak aunditzea. Igon ote naiz zerura? baña oraindio itxia dago, ta arria bezain gogor. Otsegingo ote digot Aita eternoari? ay ene! arestian bere semea ez aditu nairik zegoan, ta nola adituko nau ni? Joango ote



natzaka gurutzean dagoan geure Erredentoreari? Bai, baña onezkero ausaz il da. Zer egingo det bada, edo norganako naiz? Badakit gero ere norgana: doloreen Amari egin bear digot ez besteri, graziaren eskari au. Aingerua etorri zitzakanean berri onak ematera, esan zigon, *Ave gratia plena*; agur graziaz betea; zergatik bada bere izena aitatu ta esan etzigon *Aue Maria*, ta zergatik ezkutatu zigon izen eder au? Erantzuten deu Delbiok, *ideo quod nomen istud omen amatoris futuri sciret angelus paranimphus hodie salutaris ab nomine abstinuit, nec dixit Aue Maria gratia plena, sed Aue gratia plena*. Ezkutatu zigon aingeruak Birjiñari bere izena, zergatik *Mariak* esan nai deu *itsaso mina* ta ain zori oneko berriak ematen ziran, egun batean, etzetorren ondo bere izenean Birjiñari gogoratzea bere doloreen itsaso samiña. Bada kontrako biderik gaurko egunean, Birjiñaren dolore, damu, miñ, atsekabe guzien egun batean, eztagokit gaizki orreek guztiok berriro esatea Birjiñari bere izenean. Banoakio bada graziaren eske, Elizarekin batean esaten digodala, Abe Maria.

Stabat iuxta Crucem Jesu Mater eius. Joan 19.

Eskuetan degula bada artu degun pisu au, dakusgun alegiñez zenbat pisatzen deuen Birjiñaren doloreak. Dolore baten neurria ta sustraya omen da amodioa: zenbat eta aunditzen, edo txikitzen dan amodioa, anbat aunditzen edo txikitzen oi da dolorea: bada, kontu onetara fiñ eta neurri bagekoak dira Birjiñaren doloreak, zerren finik, eta neurririk bagekoa izandu dan Birjiñaren amodioa. Gurasoak nai oi die beren semeai biotzetik: ta semeak doaiñ andikoak diranean, nai oi die geiago: eder galantak diranean, are geiago: zintzoak eta asko jakiñak diranean, are geiago: guziakikoak ta mundu guziaren txoragarri diranean, are amatzen dituzte geiago. Baña pauso ber ber oetatik negar egiten deue alako semeak iltzen zaistenean. Bada, o Birjiña guziz santea, nork esango digu, zenbat nai izandu zinon zeure semeai, ta zenbat damu artu zenduan aren erioztzean? baña nolako semea? Kristo Jesus, ama guzietatik jaio dan semerik ederrena, zeruak oraindaño prestatu deuen gazterik lirañena, doaiñik andienekoa, zintzo, yakintsu, zur, gozo, guziakikoa, ta zeru guzien miraria. Nolako amodioa beraz izango zion bere amak onelako seme bati? Birjiñak berak badio ezen Jaungoikoak prestatu, ta zuzendu zigola biotzean amodioa, *ordinavit in me charitatem*, bakantzen zigola zaldun pillaa aundi batzuetan bezala batallaren bat ematera diazenean, *distributam in ordines militares, ac in proelium procedentem*. Nori baña eman bear dio batalla au Birjiñaren amodioak? Nori? beste edozeiñ neurtu, ta aldera nai daki-

keonari. Amodio guzia, onirizte guzia, nai ta borondate guzia, mundua asi zanetik izandu diran ama guziarena, ur tanta bat itsasoaren aldean bezala da, Birjiñak bere semeai zion amodioaren aldean.

Beste gurasoak zor ezte beren semeai, aberats, eder, sendo, osasun onekoak izatea; zerren semea ezta jaiotzen nai deuan amagandik, ezta bere eskuko batagandik ez jaiotzeko, ta besteagandik bai. Baña Birjiñak zor zion bere semeai izan eta zeuan guzia: zor zion beñikbeñ munduan zan humerik eder gozoena izatea: are zor zion jatorriz degun pekatu bage sortzea, grazia guztiaz betea, aingeruak baño gorago jasoa, zeruarekin lurraren agintaria, ta erregiña, ta beste guzien ganean Jaungoiko baten ama izatea. Orain bada oek zekusala beregan Birjiñak, ta zor ziozkala bere semeai, ez besteri, nola uste dezue amatuko zeuala, nola naiko zigola, ta zein izango zeuala biotzeko maite? Ezta au lurreen bizi geran artean jakin aldagikegun gauza, eta ezta aingeruak ere jakingo al deuen zeruan.

Ainbeste bada bere semeai nai izandu zion amak, ikusi zeuan illik bere adinaren lorean, illik semerik gaitzbageena, pekatuaren kutsurik ere etzeuana. Bazekusan gurutzearen ondoan, gazterik ederren ark bizia justiziak agindu ta galtzen zeuala: guzien ongille hura gaitzgililea, ta gaitzakerian bizitua baliz bezala: guziak aberasten zituena, iltze gogorrez lapur biren artean zur bati josia. Atozte batean sekulako urte guziak, esan egidazue arren, iñoiz ere sortu dan alako ikusgarririk. Eta doloreen Ama, zer diozu? Arren hori da zeure semea? Espiritu Santuagandik sortu zana? Sekula guziak ikusi deuen gizonik ederrena? Nola dago bada hitzik, asnaserik, bizirikan bage? Nora zaka bere zaiñetako odola? Lurrean, baratza, kale, bide guzietan isuria, ta borrero latzen oñazpietan, abere batena baliz bezala. Mii geldita isil, ezpañak itxirik begiak argi bage, kolorea ubel, burua zulaturik, oñeskuak josirik, bizkarra bostorzaturik, besaburuak lauridikiturik, ta gorputz guzia zatiturik. Zer diardu bada zure amodioak? Zer esaten diozu? Aoaz isillik dago, baña biotzez, ta bien arteko hizkunderen batean, onela hitzegin zegikion. Ay nere seme gozo, nere begietako argi, nere biziaren bizia! nola ifiñi zaituzten Adanen humeak! onelako akabera bear zeuen asiera aiñ ederrak? pagu au merezi zeuen zeure onegiñak? itsustasun au aingeruen edertasunak? eta il bear zeuanean, ezin bestela akaba zitekean neure erreyetako seme bakarra? Ay neure semea ta jabea, nolako zaduzkaten gizonak ta emakumeak? Zer egin ote dezu? Zer pekatu, zer dollorkeria, zer gaitzakerietan arkitu ote zera? Zer gaitz, zer kalte egin diezu gizonai? Zertan ofenditu dituzu? Zergatik dizute gorroto ta etsaigo ain aundia? O emen zeraten aingeruak, begira nolako dagoan zeuen kriatzallea: aita eternoa, ona emen zeure



semea illik, edo alde aldean, zeuri obeditzeagatik. Gizonak, burnizkoak ezpazerate, emakumeak, errukirik badezute, begirezazue nola dagoan zeuek irabazteagatik, infernutik ateratzeagatik, zerura eramateagatik. Ikusi ezazue, edolarik neuri mesede egiteagatik ote dan iñon, ta iñolaz ere neure dolorea bezalakorik, *attendite, et videte, si est dolor similis sicut dolor meus*.

Dagiogun gustu labur au. Tobiasen amak, bere semea kanpora bialdu ta zegoanean, sendo ta osasunaz bazebillen ere, negarrak egiñ oi zituen erremediakizun etziranak, esaten zeuala maiz, ay ene! ay ene, neure semea! *flebat irremediabilibus lachrymis, et dicebat heu! heu me! fili mi*. Zer negarrak beraz egingo zituen amarik onenak, semerik onena zekusala, ez sendo, ta osasunaz, bai gurutzean josirik, etenik, illik bere etsaien eskuaz? Rakelek ez konsuelorik naizeuan, ez konsolagarrik, ikusi zituenean epakirik arako Martyreen lenengo loratxoak, amalau milla aurtxo, Herodesek illerazo zituena, *noluit consolari, quia non sunt*. Nolako damu ta naigabeak izango zituan beraz geure Ama doloreenak, ikusi zeuanean kanpoetako lora, Jesus Nazaretarra, bere errayetako semea illik, ta igarturik? Elias, Profeten artean animo andieneko ark, bizi ere nai etzeuan, ikusi zituenean desegiñik arrizko altareak, ta illik beste Jainkoaren Profetak, *sufficit mihi Domine, tolle animam meam*. Birjiñak ikusi zeuan illik Profeten erregea, ta banaturik Jaungoiko biziaren altarea, zeñean ofrezitu zan holokaustorik onena ta santuena. Ikusi zeuan gurutzean, ta gero bere besoetan, nor, edo nola ikusi ote zeuan? Pensa ezazue astiro urrikimenduac. Esan ditugunetan ezta agiri Birjiñaren doloreen anza deuanik, *similis sicut dolor meus*. Billa dagigun albadegu beste lekutan.

Gogora ditzagun iñon edo aditu edo irakurri ditugun Martyreen tormentuak: zeñ aundiak aek, zeñ gogorrak, zeñ izugarriak: batzuek burubagetuak, besteak elorri aranzetan arrastatuak: batzuek azotez mallatuak, besteak berun urtu gorian irabiatuak: batzuek surtan erre kiskalduak, besteak putzu izoztuetan itoak: batzuek laurgituak, besteak erdiratuak: batzuek lauridikituak, laurenduak, besteak beren ezur guzietan abarrakituak, zeatuak, zatituak; eta ezin konta lekizkean beste erio-tza mota asko. Bada martyrio orreek guziok dakarziten dolore guziak igaro zituan Birjiñak bere biotzean. Biotz ark sentitzen ditu ezpataz josirik balego bezalako doloreak; biotz ark sentitzen ditu puiska txikitzen ebakitzen baleue bezalako doloreak; biotz ark sentitzen ditu berun urtu gorian irabiatzen baleue bezalako doloreak: ta onela beste gañerako guztiak. Baña ala ere ezteue Birjiñaren doloreen anzik, ezer ez bat dirade aen aldean. Eztiot gezurrik, ezpada santuak esaten deueena, *quidquid crudelitatis inflic-tum est corporibus martyrum, leve fuit, aut potius, nihil comparatione tuae passionis*.

Eta dolore kruelak! ha min gogorrak! nola atrebitzen zerate bioz garbi, bigiñ hori azaletik ere ukitzera? Nola etzoazte beste alde batera? Ez tira ausaz munduan biotz pekatariak, ondo merezi zaituztenak? Oñaze itsu garratzak, larga-egiozue biotz gaitzbagedun orri: billa itzazue burnizko biotzak, gaitzez beterik daudenak. Zoazte Mairuetara, Juduetara, ta aen biotz itsusietan sar zaitezte: baña ez arren Birjiñaren biotz bera somindu, ez estutu, ez ukitu. Ay Birjiña, geure Ama! ez diazela beste lekutara zeure doloreak; badira eleiz onetan arria baño gogorragoko biotzak. Betoz nigana, nere biotz pekatari onetara: au da zeure eralle traidore, miñez, dolorez, ta damuz betetzen zaituena. Ni naiz nere pekatuakin zeure semeari bizia kentzen digodana. Atera egizu zeregandik ezpata hori, tira egidazu, josi dagidan damuz ta dolorez neure biotz gogor au. Txitez naiko det ilteza, ta nere odol guztia isurtzea, Zeu orrela ez ikusteagatik.

Dakusgun edolarik Kristoren tormentuetan arkitzen ote degun bere amarenak bezalakorik. Santuak dioe ezen Semeak gorputzean igaro zituan tormentuak padezi-zituala Amak biotzean: ta artarako ekarri oi deue Simeonek esan zigona, *et tuam ipsius animam pertransibit gladius*, zeure aren anima batetik bestera igaroko deu ezpatak. Nola izango da hori? Anima hori Semearena baldin bada, *ipsius animam*, nola amaren animean ezpata sartuko da? eta amarena baldin bada anima hori, *et tuam*, nola herituko deu Semearena? Zergatik bien animak aiñ daude elkargana, aiñ estu loturik, ta txaridadeaz aiñ daude bat eginik, non ezin semearen anima uki dagikean ezpatak amarena ukitu bage, *et tuam ipsius animam pertransibit gladius*. Orain bada, nork daki zeñ aundiak ziran semearen tormentuak? *Omnes fluctus tuos induxisti super me*, esaten zigon bere aytari, miñ, damu, dolore guzien bagak erakarri dituzu nere gañera: bada bage oek guziok limuritu ta jauzi ziran semearen gorputzetik amaren biotzera, *sed omnes isti fluctus*, dio Delriok, *a filio in matrem defluerunt*. Argatik Jeremiasek, besterik etzeuala zerekin Birjiñaren dolorea neurtu, berari zegokala, esan zeuan aundia da itsasoa bezala zeure miña ta damua, *magna est velut mare contritio tua*. Kateak eta sokak lotu zituzten semearen eskuak, ta estutu zeuen amaren biotza; masallekoak eritu zeuen semearen aurpegia ta odoluritu amaren biotza: aranzak zulatu zeuen semearen burua, ta barrutu ziran amaren biotzean; iltzeak sartu ziran semearen oñeskuetan, ta josi zeuen amaren biotza; lanzak idigi zeuan semearen sayetsa, ta esegita gelditu zan amaren biotzetik, *sed omnes isti fluctus a filio in matrem defluerunt*. Iñon ere arkitu al badedi amaren doloreen iduritara anza deuanik, eztezue arkituko, ezpada bere semearen passio osoan eta santuan.



Minik aundiena gitxitzen edo gozaten ei da, konsueloren bat non-baiterik artzen danean. Bada Birjiñaren doloreak konsuelorik inondikan ere etzeuan izandu. *Non est qui consoletur eam ex omnibus charis eius*, esaten deu Jeremiasek, ezta konsola dagikeanik Birjiña, ez eta bere maite guzien artean.

Ez guri orrelakorik esan Jeremias: ezta izango Juduen artean, orreek dira etsai gogor ezagera bagekoak; baña ezta la inon ere Birjiña konsola dagikeanik are bere adiskide, bere aide, bere maite guzietatik, *ex omnibus charis eius*? Ezta sinistakizuna. Ezperen Aita Eternoa, arren zeuk ere konsolatzen eztezu zeure alaba maitea! ez, ez; berariaz laga deu eroria, ta egun guzian damuz ta miñez azpiratua, *posuit me desolatum, tota die maerore confectam*. Espiritu konsolagarria, arren zeuk ere ez, eztezu zeuk ere zeure ain biotzekoa dezun esposea konsolatzen? Oi eta miñaren portitza! berariaz ezkutatu zaka, ta urruti txitez iges egindio, *longe factus est a me consolator*. Edolarik konsolatuko al deu bere seme alboan deuanak: ez eta hori ere, aurki esango dedan bezala.

Nonbait ala bearko zenduen ama penatua, ez bestetan, ezpada utsik zeure negarretan arkitu gozagarri piskarenbat. Baña zer diot? Santu askok diotenez zein ere dan piska gozagarri hori, ukatu zitzakan Birjiñari. Beste damuz ta miñez daudenak, negar egiteaz arintzen oi deue beren biotzetako pisu itogarria: baña Birjiñari kendu zitzakola, dioe, are atsegin txiki au, argan egia izan zedin, *omnia lumina inrant in mare, et mare non redundant*, ibai guziak itsasoan sartzen dirala, ta itsasoak ezteuala gañez egiten. Birjiña santearen biotzean sartzen dira dolore, damu, atsekabe, miñ guzien ibayak: oi eta au miñez beterikako itsaso neurri bagea! egizu bada negar, ama santea, biotza zerbait ustutzeko, pisu itogarri hori arintzeko, zeure anima piskatxo bat bederik lasaitzeko: baña *mare non redundant*, ez tie eman nai orrelako pozik. Edolarik geuk dagigun negar, geure ama santea gozatzeko: dagigun geure kulpa itsusiakgatik, zeñak Birjiñari ematen diauzten naibagerik andienak. Egizue negar, gizonak, ekustez andrarik eder preziatuena, alako miñez auno egiña. Egizue, emakumeak, beste emakume bat onela ikustez; bai aldakizue, zeuen guzien honragarria dala. Negar egizue, amak, onela ikustez amarik onena. Egizue, alargunak, munduan izandu dan alargunik tristeena ikustez. Egizue, justuak, padezitzen dakusutenean anima bat pekatuaren itzalik ere izan ezteuana. Egizue, pekatariak, ikustez zeuen ama, ta bitarteko izango dana. Dagidan nik ere negar, naizanean guzien artean aundiena, alako obligazioz, ainbeste egin diauztan ontasunez, ofenditu dedanean neure Jaungoikoa ain maiz, ta ain itsuski. Bay, ama santea, negar egin nai det, jakiñez, zerbait

gozatzeko dizudala bioz samindu hori. Isuri egizu neure begietara zeure itsaso orretatik negarrezko erreten bat, eragin dagion negar neure biotz oni, ta are odola salterazo dagion ugari.

Konsuelorik ez arkitze onek, beste guziak baño geiago, nere iritzian, minberaatu zeuan Birjiñaren biotza: argatik etzitzakan bestezaz kejatu bere semeari bere dolore guzien artean. Zer bada esango dit norbaitek? Ausaz Birjiña kejatu zan inoiz ere passioko denporan? Etzan egondu isiltasunik itxien, ta aundienean? Egia da: Evanjelioak ez tigu ezer esaten: baña beiñ irakurri neuan Eutimion ta Metafrasten gauza bat, arrezkero nere biotza txitez ukitzen didana. Dioe bada, ezen gurutze-ondoan zegoala Birjiña, ta hitzik egiten etzizgola semeak, urrago joan ta assi zitzakala bere odola zerioten oiñ santuak muñegiten, eta esan zigola, *quid haec sunt, o Domine Deus? Ioquere aliquid modicum, ad tuam matrem recreandam... quis mei curam geret ac defendet?* Zer da au, nere Jauna ta Jaungoikoa? zer pena dira oek, nere semea? esan egidazu zerbait, hitzxo bat bederik, zeure ama gozatzeko ta konsolatzeko: nork nizaz kontu idukiko deu, eta zeu il ezkerro, nork ni zaituko nau? Zer da hori, diot neuk ere, Birjiña santea? eskatu egiozu beste gauzarik; eta nai eztezunean, Juduak onda dagitzan, zergatik zeraden uso beazunik bagekoa, ta eztagokan zeure biotzari eskari gogorrik, eskatu egiozu edolarik atera zagitzala alako miñ, damu, dolore aundietatik. Baña hitzxo bat baizikan ez? Ez nai deu, ta ez eskatzen digo geiago, *loquere aliquid modicum*.

Egingo al digo bada alako seme batek eskari txiki hori. Adi dagigun zer eranzuten digon: *mulier, ecce filius tuus*, emakumea, orra zeure semea. Oi eta amaren errayak, alako eranzuera aditu zeueenak! o *bone Jesu*, errukiz ta deadarrez dio emen San Krisostomok, o Jesus ona, ezteu beste izenik, ez beste izengoitirik andre doloretako orrek? hitzxo bat eskatu dizu, ta eranzuten diozu ain latz ta garratz? *quid tam dure loqueris?* alako amodioz, alako humildadez eskatzeak merezi ote deu tratamentu gogor hori? *quid matrem tuam erubuisti, quae te tam dulciter nutrit, tam dulciter laetavit?* Andre hori da zeure ama, ain ondo azi zinduen, ain gozo bere bularrez bazkatu zinduen: zergatik bada deitzen eztiogu zeure ama?, ausaz lotsa zera alako amagandik jaio izateaz? Eztakit nola dedan hitz oek esateko biotzik: ez tigit hizkunde oni jarraitu nai geiago. Etzion gaitzez ala hitzegin semeak amari, ezpada onez ta amodioz: zergatik ze amaren izenaz aunditu ta berrituko ziauzkan bere miñak, damuak, ta doloreak, *ides facam esse arbitrer*, dio santuak, *ne materno nomina matri dolorem amplius excitauit*.

Nork nizaz kontu idukiko deu? esan zion Birjiñak; eta eranzun zion semeak, *ecce filius tuus*, San Juani zegokala, ta argan geroi guziori, orra non



dezun zeure semea, zuzas kontu iduki ta zaituko zaituena. Usteko dezue, hitz oekin gozatu zala Birjiña zerbait? Ez bada, dio San Bernardok, bai mindu zeueen bi auko ezpata, batek baño geiago, *an non tibi plusquam gladius sermo ille, ecce filius tuus?* o nolako ordaña ematen zakan Birjiñari, dio santuak! Ematen zaka Zebedeoarena Jaungoiko baten semearen orde, mirabe bat mundu onen jabearen orde, gizon uts bat Jaungoiko egiazko baten orde, o *commutationem! filius Zebedaei pro filio Dei, servus pro Domino, homo purus pro Deo vero traditur*. Etzioen bada hitz oek konsuelorik eman Birjiñari, ez egiaki San Juanen aldetik, zeña beti izan baitzan aren seruitzari ta seme leyal bat: baño bai geure aldetik; zeñak geure pekaritasu-nean amatzat daukagula Birjiña, ain gitxi arzaz kontu idukiko genduan. Zein dira gitxi Birjiñaren doloreaz kontu egiten deueenak! Zein gitxi doloreen amagana beren jaiera deueenak! Zein gitxi hura triste ikusi ta tristatzen, hura damaturik ikusi ta damutzen diranak! Nork niaz kontu egingo deu, zigon Birjiñak? ausaz egiten deu arako aek, ta aek, urte guztian beren gustuai darraiztenak, beren jostaetak aoran, gogoan, biotzean darabiltzatenak, ta urtean beñ, ta hori ere ozta ozta, ostiral santuz edo, Birjiñaren doloreaz oroitzen diranak? Arako, onelako egunetan ere, Eleizara datoztenak, ez Birjiñari lagun egitera, ez aren miñak gozatzera, ez negarrez egotera, bai pekatu berriak egitera, bai Birjiñari bere doloreak aunditzera, bai ezpata hura bere biotzean barrunago sartzera beren gogota itsusi loiak, beren geñu, siñu, begiratze lotsabageakin, beren hizketa lizun likitsakin? Zein dira oek, ta aek? Eztakit nik: eztakiola nai Jainkoari Eleiz onetan alakorik izatea.

Edolarik izango aldira beste asko, Birjiñaz kontu deuaenak, ta aurrenez nere iritzian bearko deu Kristoren Eskuelarrak, aren batzarre santu au konpontzen deueenak. Badakust gaurko ebanjelioan Birjiña gurutzearen ondoan, baño eztakust beste lagunik ezpada San Juan ta beste emakume bi. Etzigoen bada Kristori jarraitzen beste askok, ta aurrenez bere amabi Apostolu santuak? ala da egia. Non dabilta bada, edo non ondatu dira? nola eztaude Birjiñarekin Gurutzearen ondoan? eta besteak lagun egingo ezpazigoen ere, zergatik egin bear eztigoe bere eskuelarrak, bereztat beregandu zituan amabi anay santuak? Non dabilta? non ibilliko dira? bata saldu, ta besteak ukatu deu, ta gañerakoak joan zaizka iges, utzitzen deueela bakarrik bere etsaien artean. Oi eta zeñi itsuski dirudien, bearrenak ta bearrenean utsegitea, Kristo gure Jauna aiñ erraz utzitzea, Birjiña largatzea ain bakar. Ez alda Azkoitiko Eskuela santa onetan orrelakorik ikusiko: ezta emen izango ez Kristo saltzen, ez ukatzen deuanik, ez Eskuelatik iges dabilenik, ez Birjiña bakar utzitzen deuanik.

Apostoluak anarteraño etziran sendo fedean, ta etzan miresteko, gizon argal, erbal, bildurti batzuek utsegitea. Baña oraingo Kristoren eskuelarrak, aiñ sendo dirala fedean, ain zeruko indarrez, suz, argiz beteak dau dela, onelako anayak utsegitea, eskuelara bage, etxean, jolasean, jokoa, lotan, eizean ibiltea, hori bai lizatekeala gauza itsusi, ta damugarri. Berriz ere esango lioke amak semeari, nork niaz kontu idukiko deu, nork zaituko nau ni? Bearrenak iges diazkit, nola etorriko zaizkit besteak? zeregan-du dituzunak, eztira malmetitzen, ezteue niaz kasorik egiten, ta zer kontu besteak egingo deu niaz? ta orra non Eskuelako anayak ere gozatu ez lekizkioen Birjiñari bere doloreak.

Ez nuke nai iñor ajola ta ardura bage onetan erori litekean; zergatik hori balanzaren beste aldean ifinten badegu, nere iritzian aiñ astun izango da, ta aiñ damugarri Birjiñarentzat, nola esan ditugun dolore guztiak. Baña bildur naiz eroriak daudela txitez asko. Eleiza ama santeak, dakuse-la Birjiña gurutzearen ondoan, itantzen deu, *quis est homo, qui non flet, Christi matrem si videret in tanto supplicio?* Zein da gizona, balekus Kristoren ama alako penaz, negar egingo ez leukeana? ez lizateke gizona, bai abere, bai zenbor, bai arkaitzen bat. Baña Eleiza Santea, zeure kolkoan, zeure barrutian, emen Azkoitian, badira gizon ta emakume asko, ez errukirik, ez damurik, ez miñik, ez gitxien dan sentimendurik deueenak, Birjiña ikusiatik doloreen geiegiaz gañez eginik. Zer digot, damurik ta errukirik ezteueenak? asko ta asko dira emen ajola ta ardura bageak, Birjiña ala ikusiaz, barrez, ta atsegiñez, ta pozik daudenak. Juduak izango dira orreek, deabruak, abere basotiarak. Ez Eleiza santea, eztira Juduak, kristauak derizte: eztira demonioak, arenak bai: eztira abereak, bai aek baño latz gogorrakoak.

Dabidek ta Israel guziak emango digu pruebarik onena. Kendu zigon bizia Joab kapitanak modu gaistoz Abner zeritzan bati: ta ara non bereala Israel guzian eleak ta beleak banatu ziran. Otsa banatu zan eriotz hura egin zala Errege Dabidek agindu ta berak nai zeuala. Eta zer egin zeuan gezur artatik bere burua ondo ateratzeagatik? Bein danik bein agindu zeuan mundu guziak urratu zegiela soñekoa, zeña oi zan orduan damurik aundienaren señalear, janzi zitezela zilizioz, eta zegitela negar Abnerren honretan, *scindite vestimenta vestra, et accingimini saccis et plangite ante exequias Abner*: Baña etzan hori asko adiña zebillen gezurra ta otsa desegiteko: ta argatik Erregeak berak lagundu ta jarraitu nai izandu zituen Abner zanaren katauak, edo illoea, *rex David sequebatur feretrum*: ta obian gorputza sartzekoan adiaka ta deadarrez asi ta negar aundiak egin zituan, *cumque sepelissent Abner in Hebron, leuavit rex David vocem suam et fle-*



vit supra tumulum Abner. Eta oen guzien ondoren zer ikusi ta suertatu zan? Eskritura santeak digona. Eriotz hura egin berrian jende guztiak sinistatu zeuan Erregeak agindu ta egin zala: baña ikusi zituanean Erregearen miñ, negar, ta beste damu aundi, ta egiazko baten señaie aek, orduan konturatu zan jende guzia, ta ezagutu zeuan, etzeuala erregeak agindu alako gizonari bizia kentzea, *tum demum cognovit omne vulgus, et Israel universus, quoniam non actum esset a Rege, ut occideretur Abner.*

Bada, ene kristauak, zer juizio zuegaz egin aldagiket adiuntza onetan? Ikusten dezue Birjiña doloreen geiegiaz ozta bizi dala, zerren bere seme bakarrari bizia kendu dioen. Otsa banatu da munduan il deueela zuen pekatuakgatik, eztira oek edozeiñ moduzko esamesanak. Ala dioe zeruan aingeruen artean, ala dio[e] infernuan deabruen artean, ala dioe lurrean kristau guzien artean. Eta dalarik au egia, eztezue ardurarik artzen ta gezurra baliz bezala, pekatu eriozkoan ondaturik zaute: ez lengoakgatik negar, bai berriro beste asko egiten diarduzute. Eta zer da au ezpada adierazotzea atsegin dezuela Kristo gure Jauna illik ikustea? badiozue, ondo dagokala, il dedilla, naibadeu, ala nai dezuela, ta naiz eztanda dagiela, baita il ere dedilla dolorez, ta miñez Birjiña guziz santea. Bay bai, badi-ra emen asko onezaz alegratzen diranak. Zergatik? zergatik eztan bere biotza dolorez urratzen, ta bere bularra golpez zatitzen deuanik, zergatik eztan negar egiten deuanik Kristo illik, ta Birjiña dolorez ikusiaren damuz, ta urrikimenduz. Ta possible ote da au esan dedilla egiaz, ta zeuen biotzak ikararik artu eztezaela? nai ote dezue ots deshonoragarri au zuek-gatik banatzea, ta zeuen kontura joan ditezen Kristoren eriotzea, ta bere amaren doloreak? ez arren, neure kristau onak, ez Kristoren odolagatik, ez Ama Birjiñaren doloreakgatik.

Arestian enzun dezue, orretarako zer egin beardezuten; autsi biotzak dolorez, bularrak golpez, begiak negarrez, *scindite corda vestra*, zerren eriotzea erakarri diozuten Birjiñaren seme preziatuari, Aita bezañ Jaungoiko dan gizon bati, gaitzik iñoiz ere ez, onik asko beti egiten dizuten Jaunari. Baña zenbat bider, zeñ maiz, zeñ itsuski, zein gauza txikiakgatik? oi eta non da geure lotsea? o geu Adanen ondorengoan artean esker gaistoko humeak! geure eskuan dago graziarekin batean Birjiñari bere doloreak gozatzea, ta ekartea bere atsegiñak, eta pozaldiak: jarrai dagiogun Kristori, Dabidek bezala, ojuka, ta negarka; artu dagiogun geren biotzetan betiko gorroto, ta etsaigo aundi bat pekatuari. Orrekin emendik aurre-ra ezta joango geure kontura Kristoren eriotzea, ta Birjiñaren doloreak: ezta len bezalako otsik geure kontra banatuko ez zeruan ta ez lurrean. Biz ala, o doloreen ama, egiñaz lotsa gera, pekatuaz damu degu; ta iguzu arren

damu au biziago, ta andiago. Zeugana gatoz guziok, zeure amodioak gakartzi zeure oñetara: besteak artzen dituzu ondo, ez algaituzu geu botako zeugandik. Eztegu merezi zeure seme alaba izatea; baña ala ere nai oi dezu dei zagitzaten pekatarien ama. Gaizki bizitu gera, Jainkoa ofenditu degu, aren lege santea autsi degu maiz: geuk gurutzeratu degu zeure semea, geuk zauzkatzigu ain dolorez betea. Ala gaizki. Baña etzaude alperrik gurutzearen ondoan, zutik zaude, geuri laguntzeko, eta semearekiko geure bitarteko ona izateko. Barkaziozka nagoka emen dauden guzien partez, ta barkaziozka nagotzu: ukitu egidazu biotz au beraa dedin, ta samur dedin; bete egidazu pekatuaren gorrotoz, ta Jaungoikoaren amodioz. O Jesus Birjiñaren semea, esan egiozu berriro argaitzala bere semetzat: o Maria Jesusen ama, izan zaite berriz geure ama: izango gera zeure semeak, ez oraindaño bezala muker, gogor, lege bage ta aiñ esker gaistokoak, bai seme egiazko, amoltsu, fiñ, leyal, betikoak. Eztezu zer itandu geiago nork zaituko zaituen; geuk amodio aundiarekin, geuk asnase, indar, bizi guziarekin, emen diraugun artean graziatz, ta gero zeruan gloriatz. Ad *quam nos perducatur Deus.*



SAN AGUSTIN EGUNEKO SERMOIA

1738-1760

SAN AGUSTIÑ-EN DOANDITZA

Vos estis lux mundi.

Zuec zerate munduaren argi.

(Math. V. 14.)

Argi asko degu gaurko Ebanjelioan. Kristo gure Jaunak ondrazten ditu Eleizako Irakasle edo Doktore Santuak argiaren izen ederrarekin: «*Vos estis lux mundi*». Eta onezaz bide-irikitzen digu Doktore Santu bat alabatzeko alako bide berdiñ argizkoa, zeña begien aurretik kentzen eta galtzen badegu, edo itxuka ibilli, edo illunpean gelditu bearko degu.

Argiaz itz-egiten deguean, gogoratzen oi zaizkigu bereala eguzkia, illargia, eta bezte zeruko izar guziak. Baña ez dakit nolakoa natorren gaur: ez det arkitzen zeru guzian gauza baterako bear dedan diñako argirik. Goizeko izar, arako eguna dakartenak, illunabarreko arako gau-karraioan dabilzanak, goizean zillarrezkoak, arratsean urrezkoak badirudite ere, ez naute betetzen, ukitzen, gozitzen: aĩn nator gozakaitza. Izarrak ez dira gauza; eguzkia argi gutxi duena; Zodiako guzia (zeru-troza aundi ura, eguzkiaren urte guztiko bidea) troza laburra da nere pensamentua lotuzeko.

Aita San Agustiñ-ez aĩn dakart buru au beterik, eta aĩn iduritzen zat aundia, non gutxi deritzadan zeruari eta ark daramatzien argi guziaz, ura neurtzeko eta konparatzeko. Nola bada? Eskriturak ez ditu neurtzen iñon diran Santurik andienak zeruan diraden argiak? Ala da egia. *Iusti fulgebunt, sicut sol. Fulgebunt quasi stellae in perpetuas aeternitates.* Zergatik bada neurri bear ez degu ayekin berakin? Nor? San Agustiñ? Ez orixe. Eskriturak badaki zer dion; eta diona baño geyago-ere adierazten badaki. Ez dakit ainbeste; ez det alako somarik. Zer bada! Nik bildu maixu guzieren lorea, eta nik naastu edozeĩn Santuri dagokan argipilla-batean, Doktore guzieren erpiña, Santu guzieren bikaña, Teologo guzieren gallurra, Fedarearen ohea, Eleizaren kutuna, itz-batean, Agustiñ au, guzientzat jayorikako atsegiña eta poza? Ez diot iñori alako naigaberik egiñ nai. Argi eskaxak dirade

oriek; odeatzen, illuntzen, gerispetzen diranak. Billa zadazute, arren, beste argi obeago bat, «*Dixitque Deus, fiat lux; et facta est lux*».

Lenbiziko argi artatik, diotenez, egin zituen Jaungoikoak laugarren egunean, eguzkia, illargia, eta izar guziak, eta oraiñ ainbeste izarretan ixuria eta bakandua dagoen argia, batean biribillatua egondu zan lenengo iru egunetan: «*Primo die factam esse lucem splendidissimam, dio Teodoretok, quarto die fuisse eam in solem et lunam caeteraque sidera dispersitam*». Orra bada doi doi, nik beardedan argia, argi guzieren lenik jayoa; argi errañu guzieren asiera eta jayotza. Argi au da San Agustiñ-en señale edo sinbolorik ederrena zerren dan erakusgarri obeto dagokana; beste guziak baño aren anz andiagoa duena. Dira beste Doktoreak eguzki ta izar batzuek bezela; oriek dirade argi bigarrenak beste lenbiziko batetik egiñak eta prestañiak. Biz, ordea, San Agustin, munduaren lenbiziko argia bezela, bezte guzieren iturria, ez gereizik, ez odeirik, ez illunberik ezagutu zuena. «*Vos estis lux mundi*». Zerren, Santo Tomas aingeruak dionez, Jainkoak lenbiziko argia egin zuen argi-utsa; argi-utsaren izatea zegoan erara, argi *guziakikoa*, eta *guzierakoa*. *Secundum communem lucis naturam*.

Utsegin dezu, esango dirate Filosofo bekozkodunak; begitandu zatzu; oyek dirade amesak eta kontuak, Platon-en iduripenak, egiarik bagekoak, ipuyak eta gezurrak. Ez da iñoz ikusi, ez da ikusiko ere orrelako argirik, argi-utsa danik, argi-utsaren izatea daukanik, argi *guziakikoa* eta *guzierakoa* danik. Oraindaño sortu diran argiak izan dira argi au edo ori, argi bata edo bestea, argi illunago edo arrayago, argi gutxi edo iori; baña ez argi-utsaren izena eta izana duanik; ez onena, ez arena, ez iñorena danik: ez da ori eginkizuna, ezinkizuna baizikan.

Alaere ez naiz ikaritzen berriz ba-diot etzala bestelakoa izandu mundu onen lenbiziko argia. Ez da au nere erausia; Santo Tomasek dion egia bat da. «*Oportet dicere, quod lux primo die fuit producta secundum communem lucis naturam; quarto autem die attributa est luminaribus determinata virtus ad determinatos effectus*». Bijoaz oraiñ Filosofo errietariak Santo Tomas-egana eta esan biozate aurkez-aurke amesak edo iduripenak diradela. Jakiñ bezate izan dala munduan argi bat *guziekikoa* eta *guzierakoa*, geren adiunetik kanpora argi utsa, zeĩni argi-utsaren izena ta izana zegokan, latiñez argi *ut sic*, eta euskeraz obeto *argia utsic; secundum communem lucis naturam*.

Eta oraiñ badiot ezen gure Aita San Agustiñ andia dala argi ura bezelakoa izatez, egiaz iduripenik bagea; *argi bat guziekikoa eta guzierakoa*; argi guzietan arkitzen dana, izandu diran, eta oraiñ diraden, eta gero izango diraden iñondikako argi guzietan-ere sortuko dana. San Ambrosio da argi bat eta bakar, San Jeronimo beste bat eta bakar. San Gregorio da argi au,



San Isidoro argi ori, San Juan Krisostomo, Nazianzeno, Santo Tomas, San Buenabentura dirade bat, bi, iru, lau, argi txitezko ederrak; baña bakarrik San Agustiñ ez da argi bakarra, ez da bata ez bestea, ez da au, ez da ori. Zer da bada? Lenbiziko munduaren *argia* bezela, *guziekikoa eta guzierakoa*; argi bat eta argi asko, eta argi guzia dagokana. *Secundum communem lucis naturam*. Eta argi au bera nere ustez adierazotzen digu egungo Ebanjelioak esaten duenean «San Agustiñ dala munduaren argia» esan gabetanik zer argi dan, nolakoa dan, nondik edo nongoa degun argi au. *Vos estis lux mundi*. Orra bada nere sermoigaya. Ondo mea eta segalla zeñaren bear dan bezela edertzeko eta apaintzeko, grazia askoren bearra daukat. Eska dezayogun au grazia guzien Amari, esaten diogula: *Agur Maria*.

LENENGO PARTEA

Lux mundi lucens

Nere sermoi-gaya da esatea gure Aita San Agustiñ andia izandu dala mundu onen lenbiziko argia, eta ura bezelakoa. Elkargana ditzagun biok eta agiriko da zeñ ederki dagokan San Agustin-i lenbiziko argiaren izena, eta berriz lenbiziko argi orri zer polliki datorkion San Agustiñ-en antza eta iduria. *Vos estis lux mundi*.

Lenbiziko argi ura izandu zan argi utsa, zeñaren erraiño eder iraze-kiak etziran emendatu iñoiz, ez galdu, ez likistu ere odeyez, illunez, gereizez, eta ona bereala gauza bat San Agustiñ-en argiari faltatu zitzayona. Noskiro ez dakigu San Agustiñ izandu zala lenbizian gau erdia baño illunago lañoiz, odeiez, gereizez, itxusiz betea? Badakigu. Era batean bere erara bizitu etzan? Bazan. Bere amandre gaixoari etzizozkan naigabeak egiñ eunka ta millaka? Baziozkan. Ez zirudien bere gazte denboran lagunak baño txoroagoa, errazagoa, limuriagoa? Bazirudien. Orrezaz gañera, eta gaiztoagoa dana, itxutu ta erori ez zan Manikeo zitalen utsegin likitsetan, eta ondaturik egondu etzan leize izugarri batean? Ala da egia. Ta ori da San Agustiñ argia izatea, eta beragandik argi erraiño ederrak ixurtzea?

Aditu ondo. Eta ori obeto aditzeko, arreta guziok lenbiziko argi artzaz Eskriturak dionari. Egin zuen Jaungoikoak argi ura, esan degun bezela, argi-utsa, eta orregaitikan ere bazirudien illuntasunean bildurik zegoala; edo beintzat illuntasuna argiari alderen batetik bazitzekala. Argatik Jainkoak, itsasirik zeudela biak alkar, bata besteagandik bereiztu

zuen, «*Divisit lucem á tenebris*». Esango nuke nik, lenbizi artan illuna eta argia alkar itsasirik eta eldurik, nork nori eragingo zion, zeñek zein garaituko zuen ibilli ziradela; noiz-eta Jainkoak ikusirikan burrukan biak, erdian bitarteturik, aparterazoko zituen, «*Divisit lucem á tenebris*». Eta orduan argiak bere erraiño guziak libre zeuzkaziela, aiñ bete-beteen jozuen bere etsai illun itxusi ura, non sekulako beregandik iges eragin zion, eta orrekin bera gelditu zan betiko argi-uts ederra.

Auxe bera gertatu zitzayon San Agustiñ-en argiari; ta ara nola. Batayatu artean gizon guziok ez oi gera, San Paulok dionez, gaba ta illuna baizikan, eta batayaturteaz zerura jayo ezkeroz, orduan egin oi gerade argi, «*Eratis enim aliquando tenebrae, nunc autem lux in Domino*». Orduan, Jainkoak nai-ta, igesi dijoaz gugandik illunak eta gauak; orduan Jainkoak berak izituzten ditu alkarandik argia eta illuna. *Divisit lucem á tenebris*. Ea oraiñ San Agustiñ-engana.

Egin zuan Jainkoak argi-utsa izateko mundu onetan: eta orra non bereala eraso zioten illunak eta gabak; bildu eta estali zuten bere itxutasun ta itxustasunean; eldu eta itsasi zitzayozkan, eta aiñ lazki, non zirudien emendatu bear ziozkatela bere argiak, eta ito bere argi-erraiño guztiak. Noiz ordea zan ori? Zerura jayo baño len, kristau egin baño leen, grazia-aren mundu ederrean, an-arteraiño ezer-ere etzanean. Orduan gabaren aldia; orduan illunak agintzeko mendea. «*Eratis enim aliquando tenebrae*». Ordukoak dira San Agustiñ-en odehyak, gereizeak, utsegiñez arkitu zan ezkerozkoak; ez batayatu zanetik egiñak eta ikusiak; bada arrezkero izandu da San Agustiñ, argia ez-ezen, argi guztietatik argi-uts garbi ederrena. *Nunc autem lux in Domino*. Ez iñoiz illundu, ez odehyatu, ez argez edo eklipsez ezkutatu dana; bai beragandik itzal guziak urruti bota zituena. Eta orra, oso-oso nola dan San Agustiñ, lenbiziko mundu onen argia bezelakoa. *Vos estis lux mundi. Fiat lux, et facta est lux*.

Bai egia balitz, esango didazute; bai egia balitz etzala iñoiz illundu San Agustiñ-en argia batayatu zan ezkeroztanik; ez da ordea ori egia izan zerren badakite guziak Santuak egin zituela liburu bi, bata bere pekatuak aitortzeko, bestea bere utsegiñak eta oker esanak zuzentzeko. Zer dira gaizki-egiñak eta gaizki-esanak, ez-bada gaba illuna, itzal itxusia? Beraz ez da San Agustin argi-utsa, ez da lenbiziko munduaren argia.

Ez nuen uste aiñ gogor egongo ziñatela San Agustiñen argiarekin; baño nik samurtuko zaituztet. Diot bada bildurrikan gabe, etzala iñoiz ere illundu San Agustiñ-en argia. Ez degu zer ukitu aren pekatuen gañean; zerren arestiyen giñion bezela, zerura jayo baño lena[go]koak ziran. Beste utsegiñak aiñ etzuten illundu San Agustiñ-en argia, non geyago edertu



zuten, eta biurtu zuten argiago. Au da Doktore Santu onen gloriarik andiena: luzitzea argiaz; argiaz ez-ezen, illunez ere bai; erakustea munduari ondo eta zuzen, esanekin ez-ezik, oker eta zarrera esan zituenakin ere-bai. Izan zituen bai, bere gabak argi onek. Nolakoak ordea? Arako Dabidek esan zituen bezelakoak, txit askokajiñak, gau bata besteari alkar jakiunde erakusten ziautenak. *Et nox nocti indicat scientiam.*

Geyago ikasi du munduak San Agustiñ-en gabetan beste Eleizako Doktore-en egunetan baño. Argi andiagoa zuen San Agustiñ-ek gabaz, beste guztien egunak baño. San Agustiñ-en gabak etzuen illunberik; aii zirudien ta zan argia, nola dan egunik argiena. Argatik erozeñek, San Agustiñen gabak ikustez ta irakurteaz, esan dezake Dabid-ek kanta baten erdian dion ura: *Nox illuminatio mea in deliciis meis.* Au gaba argi! Au gaba gozo! Ez nik iñoren egunetan! San Agustiñ-en arratsetan bai ditudala nik nere atsegiñak eta poz-aldiak! *Quia tenebrae non obscurabuntur á te.* Argatik eze, dituen argierak illunduko ez diraden iñoiz; «*Et nox, sicut dies illuminabitur.*» Zergatik eze, aren gaba, egun bat adiña, argituko dan; *Sicut tenebrae ejus ita et lumen ejus.* Zergatik eze, nola dan aren illuna, alaxe izango ere aren argia.

Arratsetan, ots-garbi danean, ikusten ditugu izarrak, eta ala-ere gaba da, ta illunbean gaude: baña ez da orrelakorik San Agustiñ-en gabetan, utsegiñetan, zeresanetan: bada beti dago otsgarbi, beti ageri dira izarrak; are geyago, agiri dira eguzkiak; are geyago, agiri da eguzkia ta izarrak baño argi bat andiagoa, egiten diguna egun bat, eguzkia bere erpiñ-erpiñean dijoanean baño argiago eta ederrago. Ez dezute oraiñ esango San Agustiñen argia illundu dala, odeitu dala, itzaldu dala. Beraz, izandu da argi-utsa, eta mundu onen lendabiziko argia bezela. *Vos estis lux mundi. Fiat lux et facta est lux.*

Beiiñ atera geranean gaitza zirudien pauso onetatik, nork esango digu San Agustiñ-en argi au nolakoa dan, zeñ andia, zeñ bizia, zeñ ederra? Goazen lendabiziko argiagana, eta artxek esango digu jakiñ nai deguna. Argi ura egin-baño-lenago, etzan munduan ezer agiri, etzan ezer ikusten, guzia zan gaba, ta illuntasunak zedukan osiñ leizearen azala ta gaña. *Et tenebrae erant super faciem abyssi.* Baña bitarte artan Espiritu Santua zebillen uren gañean, santutzen zituela bere ukitzeaz eta birtutez gero izango genduen batayo santurako. *Et Spiritus Dei ferebatur super aquas.* Eta onen ondoren egin zuan Jainkoak lenbiziko argia; illuntasun guztiak kentzeko eta banatzeko. *Fiat lux et facta est lux. Et divisit lucem á tenebris.*

Azken oni narraikiola, kristau-mundu onetan egin zuan Jaungoikoak gure Aita San Agustiñ, iñondik sortzen diran gabak, illunak eta gereize

itxusiak desegiteko eta ezereztatzeko. Herejia bakoitza da arrats itxia baño illunago, zeña arkitzeko eta agertzeko, ez da asko-adiña eguzki askoren argia. Nolako gaba beraz egingo dute herejiya guziak batean bildurik eta baturik? Eta nolako argia bearko da guztiak beingoan zatitzeko, banatzeko, desegiteko, eta ezereztara biurtzeko? Bada alakoxea da San Agustiñ-en argia, infernutik sortu diraden herejia guztiak, zeñ-ere diran illunak eta bortizak, desegiiñ zituena.

Bazirudien Eleiza Ama Santaren zeruba, guri argi egin baño lenago, gabaz illuntzera eta illunez estaltzera zijoala, izarrak emendaturik, ezkutatuturik eguzkia eta illargia, nork daki non. Fedearen egiak gezurraren ujolak ondaturik, bagak bagai zerraiztela, kristautasuna ondatzeko, itotzeko, galtezko zorian zebiltzan, birtuteak etzuten beren antzik, ezer-ere agiri etzan: guztia gereizez, guztia illunbe; guzia gau. *Tenebrae erant super faciem abyssi.* Manikeoak alde batetik, Donatista-k bestetik, Arrianoak emendik, Pelajianoak ortik; eta beste Eleizaren etsay ikaragarri guztiak, infernuak bere goragaletan bota zituenak, gautu zutela zirudien Eleiza Ama Santaren egun ederra. Ala ere, bitartean Espiritu Santua zebillen Eleizari bere argia prestatzen; eta artarako batayo Santubaren urak leen ere baño birtute eta indar geyagoz betetzen, arrotzen eta uanditzen, *Et Spiritus Domini ferebatur super aquas,* noiz-da bat-batean agertzen dan munduan San Agustiñ-en argia, aiiñ bizi, aiiñ andi, aiiñ eragille, alako jakiundearen errañu gozoarekin, non eguzkiak ifar-lauso beziñ errax banatu eta desegin zituen gau illun guztiak, lurperatzen zituela andikan sortu ziraden hereje zital eta herejiya itxusi guziak, batere aien aztarnarik geratu gabe lurgañean. *Divisit lucem á tenebris.*

Ar dezagun eskuan berriz gure neurria. Lenbiziko munduaren argia izandu zan *guziakikoa*, beste guzien gaya eta jayotza, zeñegandik egin diraden zeruan argi guziak. Eta gure Aita San Agustiñ izandu da argi bat *guziakikoa*, Eleizako argi guzietan argitzen dana, guzien gaya eta iturria. Argi-iturri onetan edan zituzten Eleizako doktore Santuak beren liburuetan ikusten diraden argi ederrak: onetan batzuek izartu, besteak onetan eguzkitu ziran: emendik atera zituzten ainbeste argi txuri, gorri, urdiñ, oraiñ zillar, gero urre kolore dutenak. Guztia zor zayo San Agustiñ-en argi *guztiakiko* oni.

Ez dezazutela beldur, orregaitik emendatu, bukatu, aituko dala neurrigabeko argi au; bai eta jarioko ere etorkizaldi guzientzat, mundu onek dirauen artean. Are geyago: munduan diraden eskola guziak andizkatzen dira San Agustiñ-en izenaz, eta aberazten eta edertzen oi-dabilta ainbeste urteren epean aren argiarekiñ; guztiak San Agustiñ-i dagozka; ari jarrai,



ari begira, ura bereganatzen dutela. Tomas-en eskola famatubak zenbat argi eder irazaki ote ditu? Eta Jesuitenak zenbat? Errazago da kontatzea eguzkiaz dakusgun lausoa, zeruko izardia, ondarreko are xea, basoetako ostoak, ezen ez eskola oyetako argi andi eta azken-gabekoa.

Ez da erraz, esango dit norbaitek, gauza ori zuzen aditzea. Eskola oriek ez dabilta bide batetik: bata dijoa alde onetatik, bestea orretatik; batzuek diotena, besteak ukatzen, ta ezerezdatzen dute; ta egun-oro alkarren kontratzen eta gezurtatzen dirade. Nola bada *guziakikoa* izan ditek San Agustiñ-en argia eskola orientzat? Noazkiro bayezkoa dionaren argia izan ditek ezezkoa ditkekanaren argi? Nekezago da ori, gaba eta eguna alkartutzea baño. *¿Quae societas luci ad tenebras?*

Beraz egia ez da San Agustin dala gey[en]entzat eta guzien argi. Bada ordea. Nik azalduko det nola; eta korapillo au zeñ-ere dirudien estu nik epaki gabe askatu det; eta erraz ala ere. Beti iduritu zait gure Aita San Agustiñ dala argi-itxaso zabal andi bat bezelakoa, eta izen onetxek emango digu bear deguna. Gauza jakina da zer suertatzen zayoten itxaso zaba-lean dabilzanai. Ontzi bat dijoa alde batetik, eta bestea bestetik; au dabil eguaren kontra, ori iparraren kontra dabil; orain igotzen dira eguzkiaren jayotzaronz, gero eguzkiaren illtzeronz; jaisten dira batean eskui, bestean ezker. Bide oriek kontratzen dirade; ez dira ansi, ongi dijoaz, zuzen dabil-tza, zergatik itxasoak bere barrutian, geyago badira ere, badu guziak artze-ko bear diña ur, bear diña bide, bear dan, ta are bear dan baño geyago.

Auxe bera bada gertatzen zaye, San Agustiñ-en argiari darraizkan eskolai. San Agustiñ da argi-itxaso zabal, zeñean sartzen diran eskola guziak, ta aixa ta lasai kabitzen dira, kontratzen dirala noizeanbeñ beren bideetan badirurite ere; baño argi-itxasotik kanporatu gabe! Tomistak eskui aldetik, ezkerretik Eskotistak, Jesuitak erditik bideratzen dira, guziok jakinduriaren billa, guziok egiaren eske. Bijoaz zuzen argi-itxaso onetan dabilztan artean; lema zuzen badaramate, ez dira galduko, ez-da ondatuko-ere.

Beste itxaso orri, paratu zionean Jainkoak ondarrean bere marra eta esia, esan zion: «To; ona noraño elduko aizan, aurrera igaro gabetanik; emen porrokatu eta ausiko dituk ire бага jaso apardunak». *Hic confringes tumentes fluctus tuos*. Ordea San Agustiñ-en argi-itxasoari etzion Jainkoak ipiñi muga-arririk, ez ta ubaztarrik-ere, bere Eleiza Santaren Doktoreak ibilli zitezen lasai eta zabal, gora ta bera, batera eta bestera, alkar ikutu gabe, eta kalterik artu gabe. Eta zer da au guzia ez-bada San Agustiñ iza-tea *guziakiko* argi eder bat, lenbiziko argi eder ura bezela? *Secundum com-munem lucis naturam. Vos estis lux mundi*.

Itxozu, esango dit kontuan dagoanen batek; itxozu; San Agustin bada lenbiziko argi eder ura bezela, beraz ez da oraiñ San Agustiñ-en argi-rik munduan. Zergatik ez? Zergatik lenbiziko argi ark etzuen iraundu iru egun baizikan; laugarrenean desegin zan, eskutatu zan, ondatu bezela egin zan, arrezkero arkitzen ez dala iñon-ere. Eta eranzuten badiotet badi-rauela oraindikan, eta agiri dala zeruko argi eder lenbizikotik egin zirane-tan, esango dirate ori dala izatea beste Santuak adiña bezela, baño ez nik diodana, besteak baño geyago eta argiago; bada beste guziak dira, eguz-kia eta izarrak bezelakoak, asieran esan degunez, «*Fulgebunt justi sicut sol. Fulgebunt quasi stellae*». Beraz, edo San Agustiñ-en argiaren errañurik eta izpirik-ere gelditu etzaigu, edo nere arroturikako sermoi-gayak badu itxu-rra bai, eta kemenik ez.

Ez nazute berdiñ ikaratuko. Gure Aita San Agustiñ izandu da eta oraindik ere bada, lenbiziko argi ura iru egunetan zan eta oraindikan ere dan bezelakoa. Argi ura iru egunetan oso, urrengoetara puskatua gelditu zan; galdu zuen argi ark oso ibiltea, eta geroztanik bakan dabil izarretan. Ordea San Agustin da, beingoan argi ura oso, eta puskatua beingoan: argi batua eta bakandua; osoa beragan, puskatua besteetan; argi batua bere ustakay ederrean, eta bakandua beste Eleizako Doktore guzietan.

Desegin zuan Jainkoak argi ura izarrak egiteko. Eziñ bada egin zitza-kean alako argia desegin gabe? Bazitzakean; baño guzia egin zan andiegia, argi-egia, eta gizonari etzegokana; ta argatik gizona egin baño leen, esku-tatu zuen. Lilluratuko zituen argi ark begira zegozkan guziak; kandutuko ziran, eta itxutuko ere bai; ala dio Teodoretok. San Agustiñ-en argia etzuen Jainkoak desegiñ; ala da egia: Zertako bada argandik eta arekin egin zituen beste Doktore Santuen izarrak? Zerren San Agustiñ-en argi osoa guziegia dan, andiegia, biziegia, ta ari betaz-beta dagozkan guziak lilluratzen eta itxutzen diran.

Hereje guziak-ere San Agustiñ-i darraizka; aren izena aolan, kopetan, libruetan, jolasean darabillte, beste Doktoreak beregandik urruti-urruti, ezer-ere balio ez balute bezela. San Agustiñ nai dute berentzat, San Agustiñ beren alderontz, San Agustiñ beren utsegiñen estalkizat. Ah erotzar galdutzarrak! Eta nola bada galtzen dira herejeak argi oni begira dau-dela? Geyegiak itxutzen ditu. Onzak, mosolloak eta beste gau-txoriak gauz ikusten dute; eziñ ordea egunez; eta ori ez da argiaren falta, ayen begiena baizikan: argi geyegiak itxutzen ditu. Zer nai lukete bada hereje itxu gautarrak? Beren begi lausokan, beren ikuskera labur gereizatuakin egon begira San Agustiñ-en argian lilluratu, kandutu eta itxutu gabe?



Begi argikoentzat-ere geyegi da San Agustiñ-en argia; etzayo betaz-beta begiratu bear. Nola gure Jaungoikoa argi-utsa dan, eta eziñ begiz ikusi dana, eta nola bizi dan iñor ere argana igo eziñ ditekean argi-leku batean, «*Lucem inhabitat inaccessibilem*», ala egotsi zion San Agustiñ-en argi oni egoki auxe: egin zuen argi utsa, eziñ iñork ere begira dezakeana aurkez aurke eta zuzen, itxutu gabetanik. Eta nola Jainkoaren argia ikusten dan beregandik ixurtzen dituen erraiñuetan eta ispilluan bezela agiri dan kriatura oyetan; «*Videmus nunc per speculum in aenigmate*»; ala etzayo bear begiratu San Agustiñ-i, ezpada bere argi erraiñuetan, eta argandik agiri diraden Doktoreetan. Etzayo begiratu bear San Agustiñ osoari, bai San Agustiñ bakanduari. San Agustiñ-en osoak itxutzen du geyegiaz, eta argi bakanduak argitzen du bear danaz; oyen guztien ondoren ederki atera dezaket: beraz, San Agustiñ da Eleizaren *argirik andiena*; beraz San Agustiñ da *argi guziekikoa eta guzierakoa*; beste argi guztien gaya eta jayotza; beraz, San Agustiñ da, munduaren asierako argia bezelakoa.

Santuren batek adierazotzen oi du, aren Santutasuna noraño eltzen dan. Zenbat eta justuak oi diran argiago, anbat oi dira santuago. Beraz, dalarik San Agustiñ guztiak baño argiago, izango ere bada beste guztiak baño Santu andiagoo. Itxozute. Jainkoak lenbizian gauzagiñan ibillita, guztiak bukatu zituenean, esan zuen; guztiak ziradela txitezko onak, «*Et erant valde bona*». Etziekien bada zeñ zan ayetan onena? Nola ere ziakien; baño ala ere etzuen besterik esan. Berriz lenbiziko argi ura egin zuenean; zer esan ote zuen? Esan zuen ona zala, eta ez besterik. Au miraria! Ona baizik ez? Ez da bada argi ori argirik ederrena, argirik gozoena, argirik andiena, argirik ongilleena? Esan beza bada Jainkoak, argi ura dala argi eder, gozo, andi, ongillea, eta ez uts-utsik dala argi ona. Eta edolarik, ontasunez itzegiñ nai bazuen zergatik esan etzuen zala argi bat beste guztiak baño obeagoo? Ah zeñ ondo erakutsi nai zigun, nola itzegin bear genduen santuen gañean! Guztiak dirade onak txit, guztiak dirade txitez santuak; «*Erant valde bona*». Ez degu ordea guk erabaki bear, zeñ dan oyetatik onena eta santuena; zergatik oriek diraden berriketak, txorakeriak eta erausi alperrak. Jakiñ nai nuke nik ala-ere San Agustiñ-en santutasuna nolakoa, eta zeñ andia dan. Ordea Santuak konparazioetan sartu bear ezpaditugu, zer neurriekin jakin aldeakegu? Iñon dan ederrenarekin.

BIGARREN PARTEA

Lux mundi ardens

Aditu dezute nolakoa eta zeñ andia dan San Agustiñ-en argia. Diot bada aren santutasuna are andiagoo dala aren argia baño. Orretarako ez degu San Agustiñ-en santidade au alde guztietatik begiratu bear: urruti txit eramango ginduke gauza onek; itzegingo degu aren Jangoikoarekiko karidadeaz ta amodioaz.

Karidade au izandu zan aiñ irazeki, bero, santu, ta andia, non biotzetik egiñikan, mundu guziari eransi ziozkan Jangoikoaren amodiozko garrak eta txingararak. Etzitzayon kabitzen bere biotzean, zeñ ere zan andi ta zabala, Jangoikoagana zeukan sua; ori esan nai digu eskuetan daukan biotz ark, sua eta garra dariola. Badizeka biotz oni barrendik eta kanpotik, betik goitik, eskuitik ezkerretik, alde guztietatik: ori gitxi agiri da. Badizeka-ere beregandik kanpora, eta Jangoikoa amaten ez du neurririk ezagutzen.

Amodio onen neurria oi da biotz osoa, ez biotz puxka, ez biotz erdia. «*Diligis Dominum Deum tuum ex toto corde tuo*». Besteak Jainkoari nai oi diote biotzetik eta biotz osotik. Baña San Agustin aurrerago dabill; biotz osotik ez ezen, geyago ere amaten du bere Jaun ta Jabea. Osotik ere baño geyago? Orra ipuia geyago ori. Edo da biotzekoo, edo ez da; biotzekoo baldiñ bada, au da Jainkoa amatzea biotz osotik. Bai. Ez ordea geyagotik. Biotzekoo ez baldiñ bada, zer amore izango da? Ez beintzat estimagarria.

Ez da ipuia; egia, da. San Agustiñ-ek nai zion Jainkoari, biotz osotik eta geyago. Zer da geyago ori? Zer dan? Biotz utsa eta biotz bat ez ezen, baita milloi biotz-ere. Bat dirudi izatez, baño Jangoikoarekiko daukan garra milloi bat betetzeko diña bada, eta geyago. Au ere bai? Are geyago? Bai suertez-ere; eta ikaratuko zeraden adiña.

San Agustiñ-ek maita zuen oso beti Jainkoa; baño gutxi nai ziolako kezka samiñ batek utzitzen etzion pakean iñon ere. Zer egin zuen bada? Kendu zion, ostu zion naita nai ez Jangoikoari bere biotza, eta arekintxe arrezkero amatu zuen. Zer da au? Jainkoari ostu biotza, eta ori nai ta nai ez? Adizazute Jainkoak berak zer dion. «*Averte oculos tuos a me, quia ipsi me evolare fecerunt*». Anima santari zegokala esan zion; *Irauli itzatzu begi oriek, zerren neregandik kanporatzen naute*; ezin nagoke neregana, zure begiak nago-tela, aiñ dituzu txukun, bizi, ederrak; eta badakizu len-ere eritu didazula nere biotza. *Vulnerasti cor meum*. Au Jangoikoaren izkundera! Bai. Bada



beste era batera dio: *Quia exordasti me*. Ken begi oriek, ez niri begira; *Zergatik biotz-bagetu nazun*. Beste erara, «*Abstulisti mihi cor*» Ostu didazu nere biotza: ta Nizeno-k diona, *Atera didazu barrendik nere biotza, ta sartu ta itxi eta lotu dezu zure biotzean*. «*Cor meum mihi eripuisti, et in corde tuo conduxisti et captivasti*». Zer dute bada begi oyeak, alako beargayak Jainkoari ematen eta aĩn beregandik kanporatzen dutenak? Zer begi dira oriek? Begi oyeak beste gauza askoren artean adierazotzen digute Jaungoikoarekiko izan oi dan amodio bizia eta gartua, zeñaren txingarrak aĩn dira gozo, indartsu, portiz, non Jangoikoari berari egiten dioten begizko santu bat, ta amore-miñez gaizkitzen duten. «*Amore langueo*».

Iñoiz eta iñori Jaungoikoak ala itzezin badio, gure Aita San Agustiñ aundiari itz egin dio. Aĩn zituen santu onek begiak txoragarri, aĩn zirakien Jainkoaren amorez, aĩn suturik eta irazekirik zedukan bere biotza, non Jainkoa zegokala betaz-beta begira, txorutzen bezela asi zan, esaten ziola. «Agustiñ nerea, ken itzatzu begi oriek nigandik; irauli itzatzu beste aldera»: «*Averte oculos tuos a me*». Leen zauritu didazu amorez nere biotza «*Vulnerasti cor meum*», orain ostu dirazu biotza, «*Abstulisti mihi cor*». Ken itzatzu bada nigandik zure begiok, ez niri begiratu; itxi itzatzu beintzat, neregandu nadiñ; bai, arren; nigatik au egiñ bear dezu.

Ez orixe, dio San Agustiñ-ek; ken ditzadala zuegandik nere begiak? Ordea, noratuko ditut? Iraulit ditzadala beste aldera? Ordea, zu izan nere alde guzi, zu nere aurre ta atze, zu nere goi eta be, zu nere eskui ta ezker. Eritu dizut biotza? Ala ondo. Orrekin atea iriki det an sartzeko eta bizi-tzeko. Biotz-bagetu zaitut? Ez dezazula auzirik: ez dago galdua, nerea izango da zure biotzaren kutun. Ostu dizut biotza? Ta nik ori nai. Ni zure biotzaren lapur? Jakiñ nai nuen; txit orain juango zait, samintzen ninduen kezka ura; orrekin amatuko zaitut bear dezun eta bear dan adiña. Zeregandu nai zenduke? Ez; Agustiñ bizi dan artean, neregandik bearko dezu; eta nere iritzian etzera gaizkiago egongo. Ez bide dagokizu zenbat nai dizudan. Zer esango dizut? Orra; nai det txit nere Jangoikoa zeraden; baña eginkizun balitz zu Agustin izatea, eta Agustin izatea Jainko, Agustiñ-ek Jainko izatea ez luke naiko, zu bakarrik izan zindezen Jainko.

San Pedro-k ez omen ziekien, zer zerakuen Tabor-eko mendian. «*Nesciens quid diceret*». Eta ez bide daki San Agustiñ-ek zer darauzkion, zorabiak artu du bai; baña amorezko zorabiak; argatik gogoratu zaizka alako itzak, arteraño munduan aditu etziranak; ez eta obeagorik adituko ere, biziago, gozoago, eta amorezko itzkundean andiagorik.

Ona noraño eldu zan San Agustiñ-en santutasuna, karidadearen alde-bakar onetatik; etzan aren argia onenbesteraño luzatu: aren argien

eginkizunera eratu zan, ez geyago: bañan aren santidadeko eginkizuna, aruntzago aurreratu zan. Prometeo zeritzan batek, diote ipuyak, egin zituela gizonak ala emakumeak are eta lurrez naazte, eta gero oyeak pixteko, eta bizi-erazotzeko, ostu ziola eguzkiari sua eta argia. Etzuen orrelakorik egin gure Aita San Agustiñ-ek: mundua argitu zuen Jaungoikoak eman zion argiarekin; etzuen ordea Jaungoikoari bere argitik ezer ostu, mundua suz, argiz eta egunez edertzeko. Baña ala ere, Jainkoa amatzearen egitekoan, aĩn etzan kontentu bere bat-bakarrik zuen biotzarekin amateaz, non pakerik izan etzuen, Jainkoari bere Biotza ostu artean, ura arekintxe andik aurrera geyago eta geyago bear zan bezela amatzeko. Orra bada nola, Agustiñ-en argia dan ona, eta andia; baña orra nola, aren ontasuna eta santidadea dan andiagoa eta obeagoa. «*Vidit Deus lucem, quod esset bona. Vos estis lux mundi*».

Ez algera argi geyegiaz lilluratu, eta ainbeste surekin izostu; argia eta sua bear ditugu guztiok, zuzen eta errebelatu-gabe zeruko bidean ibillteko; adimentuan argi, eta biotzean su. Adimentuan argirik ezpadegu, galduek gera; ezdegu ongi ikusiko, bide limurietan irristatuko, zingiradietan ondatuko, arkaitz-erpiñetan amilduko gera. Lurreko eta zeruko gauzak ezagutzeko, argiaren bearra degu; baita ere gauza guziak diran bezela izendatzeko; ez txuriari beltz, ez okerrari zuzen deitzen diogula. Ez da asko adiña edozeiñ argi; goikoa beardegu, zerutarra, Jaungoikoaren eskuti datorkiguna. Gure Aita San Agustin da argi-uts garbia; gatzokion bada, desegin ditzazkigun gure illunak eta gabak. Ark badu argi bat *guziekikoa* eta *guzierakoa*; ez algera aĩn doakabeak, suerte gabeak izan, non, beste guziak argirik, illunbean gelditu geraden.

Bai noaski; Agustiñ Aitarik aundiena! Bai, beteko gaituzu argi edereez, batere utsik egiñ ez dezagun zeruko bidean. Eta besteentzat alakoa bazera, nolakoa izango ote zera etxeoentzat, seme-alaba maite biotzean daukatzizunentzat? Oiek bai dakitela seme-alaba leyal piñak bezela, zure argiak eranzuten! Argatik dabilta aĩn aixa birtute guztietan, zure itzalaren azpian, zure mendean bizi dira; zure eskupean dituzu, alde eragiteko, iñondik sor ditezkean gereizeai; pozik daude, eta pozik zaude; pozik daude, zu bezelako Aita bat izateaz; pozik zaude onelako seme-alabak idukitzeaz. Zure biotzarekin neurtu zuk, oso espiritu osoaren jabe, ta zure argi guziaren gordairu egin dituzunak.

Ez degu argia adimentuan baño bear gutxiago sua biotzean. Pizten ez badegu maiz Jainkoarekiko bear degun amantza, emendatzen bazaigu izotz egiñikan, gogortu eta ezin ibillirik arkituko gera. Eta orduan gure etsaiak bidera irten, eta erasoko digute; daramatzigun ondasunak kendu



eta lotuko gaituzte. Perill orietatik ateratzeko, prest degu sua, gure Aita San Agustiñ-en biotzari sua eta garra darion artean. Aldera gakizkion. Berotu, sutu, erreko ere badigu Jaungoikoaren amorez geren biotza; ta su arekin batean beterazoko digu atsegiñez, mesedez, birtutez, graziaz, gloriaz. *Ad quam etc.* AMEN JESUS. Alabiz.

ANDOAINGO SERMOIA

Dn. Agustin de Leiza zanari, Andoaingo uriak egin diozkan illetetan, andoaindar sona andiko hiztun baten doluzio hitzaldia.

Hilda, beraz, sekulako Andoaindarrentzat bizi bear zuen gizona. (Jauna, egin bedi zure borondatea, nola zeruan ala lurrean). Eta, nondik dakigu berri damuzko, illundu bear gaituen hau? Indietatik, Jujuietik, Buenos Airesetik, ala darauskigute, ta geroenez Kadizko Jaun Kontratazioko guziak huraise bera, hildala, sekulako Andoaindarrentzat bizi bear zuena. Nor da bada? Dn. Agustin de Leiza, Andoañen jaioa, Andoañen bataiatua, ta naiz itsasoz ta leorrez, munduko bazterretan ibillia, Andoañen beti biotzez, Andoañen beti gogoz, Andoañen beti bere etzinde osoaz bizitu dana. Ay! hau Andoaindarrentzat, nere artar prezia-tuenzat, naigabearen portitza! Ay! talere hau mingarria, latz ta gogor!

Bear bada ezta egia izango; otsa ta gezurra, ta irudipen bakarra izanen da: alabañan *de luengas tierras, luengas mentiras*, esan nai du, «urrutiko berri luzeak, datozela gezurrez beteak». Ay! berriz hori orrela baliz! Baña ezta ala ondikotz; eta oi danekoz, berri illun, negargarriak eztira omenean, ez diotenean gelditzen, egiaren biotzean jotzeraño irago oi dira. Bada berri alakoetatik bat izango dala gure Dn. Agustiñen hilberria, adierazotzen digu, orrako begien aurrean degun hilloi, katabu, tunba argiz ondo, baña beltzez ta doluz obeto estalia dagoen horrek. Eztigu gezurrik esaten, eztira irudipenak eta ametsak // egia da oso ta oro, hil dala Jujuien gure Dn. Agustin, baita hil dala sekulako Andoaindarrentzat bizi bear zuen gizona, sekulako guziok bizia ta biziro bear genduena.

Surmurrean nerekiko zagozkidate ezin datekean ele andiren bat, oarkabea darauzkidala diodanean hilzaigula gure artar onekin batean, sekulako guretzat bizi bear zuen gizona. Ez, ez naiz oarkabetu, berriz ere badiot, ezer ta nor bagera Andoaindarrok, beti bear degula hitzetan, beti gogoetan erabilli, Dn. Agustin hilta, galdu, ta hil zaigula sekulako Andoañenzat bizi bear lukeana. Nola ordea, diozute aopean, nola naiko degu beti bizi bearra izan dedin, dana dala, gizon bat fedeak erakasten badigu gizon guztiak hill bearrak dirala irakurtzarik bage? Ara nola: eta fedeak erabakia daukanaren kontra ezer ere esan gabe, adiaraziko dizutet aisa, ta lasai nere adimentu oni itsatsi zaion gogorazioa, ta nere hitzaldi onen gaia izango dana. Diot bada, ezen Jainkoak nai balu Andoaindarren alde egin oraindaño ikusi eztan irakurtzaren bat, esaten digula: Orizute,



Andoaindar bat ez beste guziak hil bearrak dira, bat bakarra horise, izan bear lukeala ez anziñakoetatik norbait, ez oraingoetatik bat, ez etorkizunetatik besteren bat, ez urlia andikietatik, ez sandia gerratietatik, ez berendia Erregeren aldekoetatik; bai bakarrik guzien artean gure ertar hau, Jainkoak duelako Leiza gure honragarri hau. Ona nere gogorazioa, ta ona bertatik bere agiriak, ta irozgarriak.

Zabaldu itzatzue zuen begiak, len ta orain ta gero izango diraden Andoaindar guzien gañera: ara itzatzue bazterrak, auspetik atera itzatzue iñarrusi, paper zarrak, sitsak ta anziñako denborak erdi janak dauzkatzienak, eztezute orietan arkituko Andoaindarrei geiago nai izandu dienik, zuek guztiok biotzagotik, eta beroroago onetsi zaituenik, gure Dn. Agustin zana baño. Eta bada amoreari amorez eranzuten zaio, esker gais-tokotzat iduki etzaitzatedan, aitortu bear didazute eztiotuzela zor zuen biotzetako nai ta amodio andia, ez lenagokoai, ez oraingoai, ez gerokoai, bai ordea gure amore miñez bezala bizitu dan oni, gure ertar amolsu oni, gure Leiza bakan ta bakar bakarri. Beraz, zuen eskuetan balego, Jainkoak ala naita, Andoaindar bat ez beste guziak hil bearrak, ta bat hura sekulako bizi bearra izatea: esan ditugunen artean, ez besteren bat, hau bakarrik bereistu bearko zendukete; eta zuen aukera onekin Leizaren zue-kiko amore, zuen guzien amoreaz doi doi ta guziz ederki eranzuna geratuko lizateke.

Amatzea (gurea degu hitz hori) edo maitatzea besterik ezta, baizikan amaten degunari on egitea, aldegunean ta eztegunean, edolarik on nai izatea. Atozea, amaten dezu, maite dezu urlia? Albaldin bere! bai, maite det, guziz det nere onetsia ta adiskide mamia. Onik egin diozu iñoiz, edo nai izandu diozu? Orise gogoratu ere etzait. Eztezu, beraz, urlri orrentzat egiazko ta benazko amodioa. Horri diozun guzia ortz artean jαιο ta ortz artean hiltzen dan amodioa da: hitza ta pitza da zure urliarekiko nai guzia: hitzezko amodioa, ez hiltzezkoa, hiltzez josia bezala biotzean bear dezuna: alabañan obrak dirade amore, ez hitz onen kolore. Orain bada ikusi degunean, gure ertar onek Andoaindarrak maitatu dituela lenagoko, ta oraingo guziak baño, baita izakizun geroko guziak baño geiago, biziroago, benazago, onetsi dituela, ez hitzez ezen baita, ez erausiz ezen baita, ez jolaz alperrez ezen baita, biotzaren erdi erdiko naiez, suz, beroz; dakuskun, zer ta zenbat on egin dien Andoaindarrak, edo zenbat on egin nai izandu dien; bestela esain didazute, obrak diradela amore, ez nere hitz onen kolore. Ala da, hori ikusi bear degu.

Eta guzien sustrai, zimendutzat ausye ezartzen det, ez lenagokoen, ez oraingoan, ez gerokoen artean sortu dala, ez eta sortuko ere,

Andoaindarrenzat ongille andiago, ta ioriagorik, gure Dn. Agustin maitagarri hau baño. Ongille batzuek dira gaitzak gugandik aienatzen dizkigutenak: beste ongille batzuek dira onik asko ta iori diakartzigutenak: ta ongille andienak // dira, gaitzak kentzen ta onak ekarten dizkigutenak: eta oietakoa degu gure Dn. Agustin zana. On asko beñipein egiten digu, kalte ta gaitz ta mingarrietatik ateratzen gaituenak. Begira, bada, zer kalte ta atsekabe gogorretatik Dn. Agustiñek atera gaituen Eliza berri orrekin. Zuen erausiari nagoka: Anziñako eliza urruti dago, mendian dago, eremu jenderik bagean dago: aldapa luzea ta gogorra: udan eguzkiak iraltzi oi gaitu, neguak jelaz ormatzen gaitu: gaur bideak labaiñ, limuriak izotzez, biar euri jasaz bustiak, ta lokatzez gañeztatuak. Zapatak galtzen, gonak eta mantuak erpaz zikitzen ditugula. Zer bada, aize bunbada portitzak, beñ batetik, beñ bestetik, beñ batera, beñ bestera, bulzaka garamatzienean? daramatzigun soñeko tresnak nasten, okertzen, banatzen dizkigula: ikuskari itsusi, begira daudenen irrigarri, alde guzietatik desapaindurik elizatari orretan sartzen geradela? Ona gaitz asko, ona atsekabeak franko, ta ona mingarriak ugari. Baña egia esateko, ona adiak prankoago, ta ioriago aitzakiak, Jainkoaren toki ederretik alde egiteko, igesi ibilteko. Bedeika lenagoko Andoaindarrak. Etzituzten orrelako aitzakiak atzeratu goi ta gaiñ onetan Jainkoari eliz hau jasotzera: eta gogoratu baldin bazitzaizkaten ere, aurkeriatzat, funsigabeko gauzatzat idukitu zituzten, Jainkoari zor ziozkatenen alde egiteko, ta eramateko neke andiago, gogorrago ta latzago asko. Orañagotik, aurtendanik, Andoaindarrak piskatu dira, mendretu dirade, gizonak erbal argalago, andreak, jakiña, ergelago; bidriozkotu zerate guziok; baita ondikotz, ez lotsa andiarekin.

Begira orain gure ertar zanak zer on egin nai izandu digun: bere ertarren alako aitzakiaz urrikiturik, eleiza berri hori jasoerazoaz nai izandu du mingarri ta neke, ta naigabe horiei, ta zuen aitzakia guziaz bideak itxi, geiagoren geiago aipa eztiatzazuten. Esan oi zenduten: eliza urruti dago kaltetik. Bai? orra bada aldean, orra bertan, orra kale bien erdian. Bai baño mendian dago. Bai? Orra bada be bean, ibar ibarrean. Bai baño aldapa gora dago. Bai? Orra bada lau lauan, zelai zelaiean. Bai ordea, ezta ikusten, agiri ere ezta. Bai? Orra bada agiri agerian, ta guzien begien aurrean; ezta iñork oraındaño bezala galdetuko, Andoaindik elizarik duen ta non dagoen. Zarkotearen anzekoa egin zuten lengo hau. Orra bada berri berria, Probinziako eleizen artean, (ta kontu dagigun damak diradela emengo eleizak) damarik ederrena izango ta izendatuko dana. Lengozar hau ondatua, ez omenik, ez izenik, ez honragaririk Andoain ematen diona: Orra bada oraingo berri orrek, alde guzietara ollartua dirudiela,



Andoain famatua egingo duena; bidezko guziak dakustela nai ta ez, bere edergarriz begietan jo ta, biotzetaraño sartuko zaiena.

Ikusi degu zein dan ongillea Dn. Agustin, gaitzak aienatu dizkigun aldetik: dakuskun orain ondasunak ugari biribillatu dizkigunetik. Eleiza egingo etzana, orra egiña; ezin zatekeana, orra datekeana, orra egikizuna ez ezen jaso, garai garai goratua, ederki estalia ta aurki bere apaingarri guziakin ikusiko deguna koroatua. Etzuen nai deabruak eleiza berririk, ta are gitxiago, dagoen larrain ederrean egin zedin. Eta hori zergatik? Zerren igertzen zigun, eliza berriak Jainkozko gauzak maizago gogorako ziauzkula. Parrokia berriaganako jaiera andiago artuko genduela, eta bide orrez Jainkoa gitxiago ofendituko, aserretuko genduela, geiago serbituko, poz-tuko genduela: eta horiek oi dira etsaiaren eraberik andienak, eziñ eramanak, ta gorroto dituenak.

Zergatik geiago nai etzuen etsiak eleiza berria? Zerren zar onetan ikusten zituen aurrerako ikusi naiko litukean Jainkoarekiko uts larri asko, egingabe asko, bide onetik errebelatze asko, bide gaistotik sartu irten asko, hitz batean zerren anziñako onen bidez okerr asko eragin nai litukean, eragin dituen bezala. Esango alditut? tilit tilit mingaña dagokit: baña ozka bada ere lotuko det, isilduko det; gaurko illetak ez tira orretarako. Anziñako eleiz onetan ozta kalejendeak Jainkoa iduki zezaketen gogoan: alabañan urruti dago gogorazio santuen esnatzallea: noizean beñ ta bakan ta urrutitik bezala, agurtatu oi dute, ta askok aste osoetan diosalik ere egiten eztiotela: eta hori deabruak nai. Orain esnatzallea, irazartzallea izain da aldamenean, eleiza begietan, ezkillak belarrietan, pauso guzietan esnatuko zaituztenak, bekatuaren lozorro gaistotik ateratzeko mugidatuko zaituztenak, zeruko bide ederrak agertuko dizkitzutenak. Eta hori deabruak ez nai: ezta deabruaren // morroi gizon biurri askok. Ay! ta hau isildu bearra!

Esan ditugun oien gañera, begira zenbat ondasun bialdu dituen eliza berri hori egiteko. Lenbizian 45 milla ezkutu esan zitzaizkanak, gero bear-ko diran guztiak bukatzerako, kanpoan ta barrenen edertzeko, apaintzeko ta aberasteko. Bai, ikusi zan emen, zein zan diru ederra bialdu zuena: señaile orduan norbaitek esan zuela ongi biotzeko miñez arrezkero naukana (uztazue edolarik errenkura piska onez zerbait aska nadin) bederako sinplea da, diru ederr hau berekin, bere kutxan iduki dezakeana, onara ta aiñ urruti bialtzen duena. Ezta hori Andoaindarra: nere artean esan nuen, aberastu besterik biotzean ez tuenen bat izango da: baña ezta sekulan aberatsetakoa egingo, abere atsetakoa bai, abere animarik zerurako ez tuena: abere, bere barrango gogoetak izakari atsetan ta basietan darabiltziena:

bada Kristo Jaunak dionez, non eta dezun zure biotza, antxe dezu zure gauza onen gordairua, edo non ta dezun zure gauza preziatuen gordairua, an ere dezu zure biotza. Eta bada aberetzar ark diru aietan, edo alakoetan zedukan bere biotza, aietan zeukan bere gordairua, ez eleizan, ez kristau gauzetan, ez zeruan, ez bere ta gure ta guzien Jainkoagan.

Ezta orrelakorik Andoañen: izango zan etorkiren bat, ta nork daki nondikan etorria? Judas erako leñuren batetik, diruagatik edozeiñ gaitz egiten duena, diruagatik deabrukerietan sartzen dana, diruagatik honrari uko egiten diona: diruagatik bere salbazioaz malmetsi ez tana, diruagatik aingeruai, santu ta santa guziaz, santuen santuari, burlagiñen dagotena, Jesukristo bera diruagatik saltzen duena. Ez orrelakorik Andoañen billatu: ezta berdin Andoaindarren artean ain zikinkiro kutsaturik: guztiak dirade biotz nobledunak, honraz, leialtadez, prestutasunez, kristau onen fedez bete beteak. Bestelakorik idorotzen bada gure bazter oietan, ez tira emengoak: bira diranak, arrotzak dira, erbestekoak, alde okerretakoak. Eta ots orain, nere ertarrak, bakar onekin dedala usteko dezute, beste askotxorekin ere dedana; baña // gaur bakarrik musuetan joko zaituztet, esaki jakiñ onekin, zuri nagotzu nere erraña, adiezazu zuk ere nere giarraba.

Ikusi dezute zenbat ondasun egin diozkan Dn. Agustin zanak Andoañi? Bada are geiago ta geiago dira egin nai izandu dituenak: ta Jainkoak patu onekoak egin ditzala bere testamentuan agintzen dituenak, ta orduan sinistuko dezute, eztedala nere jolas onetan dana baño geiago anditzen, lentobeki uzkurtxo, nagitxo, atzeraise geratu naizala. Arreta orain Leiza zanaren ta nere bien arteko jolasari. Norenzat nai dituzu; gure Andoaindar mena, norenzat zu hil, ta zure etxean arkituko diraden diruak? Norenzat? nere Andoañenzat. Eta norenzat zure etxeko gauza preziatuak eta balio andikoak? Norenzat? nere Andoañenzat. Eta norenzat nai dituzu Jujuien dituzun lurr, ta soro, ta bazter zabal andiak? Norenzat? nere Andoañenzat? Baita norenzat naiko dituzu Lima aldeetan dituzun beste ondasun aiek? Norenzat naiko ditut? nere Andoain biotze-koarenzat: saldu bitez guziak, dirura bitez lenbailen, ta bialdu zaizkidatzute Espaniara; baña Espanian Andoaña, ez bestetara. Niri jalkiaz bezala ditxoazkidan oietxek guziak, sermoi bati dagokan modu onetan ez esanagatik, jakizue testamentuari dagokionean, guziak esaten dituela; ala nola esango litukean Jainkoa ta Andoain besterik gogoan ta biotzean eztauken besteren batek.

Ainbeste gauza miragarri adituaz zuen amodioz, zuei ongi naiez, zuenzat, ez besterenzat bialduak, gizon ta andre, Andoaindar garbiak



bazerate, biotzok bigindu bear zatzaizkitzute, hil danaren alde itzultzeko; aren amodio paregabekoari eranzun naiez, Burunza orretako arkaitzak baño gogorrago ezpazerate, urtu bearrak zerate aren amorez, adierazozten diozutela, bera izandu dan bezala, zerok ere Andoaindarrak zeratela fiñ fiñak, leial leialak, garbi garbiak. Baita bearr ere! Arriari zagozka, aita Garagorri: ni aidea ninduen, ta eztit ezer utzi! Eleiza berri horrek zer on diakart niri? // Ez ogirik, ez artorik, ez ardorik, ez eltzekizunik; ezer ere orren ondasunetatik ez datorkit. Zeri dagokala, bada, aren amore minez urtu bear det nik? Naiko nuke bakar batena izan ledin onelako hizkunde itsusia. Baldiñ otsoak, ta arzak, asto ta mando, zaldi ta zakurrak balira Andoaingo seme alabak, ez ninzake miretsiko aditzeaz onelako esana, onelako sanga, orroa, marruma esan bear nuen; eztute alabañan beste hizketarik abere horiek. Baña gizon ta emakumeen artean, ta are emakume, ta gizon prestuen artean alako jolas zikiñak ereitea ta pozik aditzea, arritzen nau, eta aserretzeko mugida guziak eraikitzen dizkidala nago. Ez nadin ala ere aserretu: aserrear sartu ezkerro gaistoa naiz ta gogorra: gogoratzen zait non jaoa naizan, ta pizten zaizkit Aiurri-errekak eransi zizkidan suak eta garrak.

Badakite Andoañen abere ez tiranak erriari egiten zaion ona eztala biurtzen gaitzera; guziakikoa izanagatik ona gelditzen dala eta bati edo biri egiña baño andiago ta preziatuago. Guziakiko ona ta ondasuna, guzien izendagarria, guzien honragarria da, Jainkoa, ta mundua, ta inguru guziakiko alabanzarik andienak dakartziena. Onelako edertasun preziazgarriarik ez luke izango inñolaz ere, zuri bakartxo horri egin zezakean onak: ezta zuri sabeldarraio horri; ezta zuri gaizki esaka urtzen zeraden horri; ezta zuri eleizatzen ardandegia daukazun horri; ezta zuei Jainkoaz aztu ta zikinkerietan zeren bizi guzia irabiatua darabilzutenai; ezta zuei, zerurik, ta Jainkorik ezpaliz bezala, illargipeko txarkerietan beti igorka, eta dakizuten abereen erara, beti aietan inñalduriska, aisa ta pozik zabilzatenoi, zuen atsegiñak, zuen fortunak, gloria osoak alako basikerietan billatu, ta baita ondikotz arkitzen dituzutenoi. Aserre latzagoak barrunbean gordetzen ditut, sinistua, eztala geiagoren geiago nere ertar arrazoizkoen artean, alako hizkuntza deabru guziak baño beltz itsusiagorik adituko.

Esan ditugun Dn. Agustin zanaren bi moduetako ongiteak anditzen dira, ta arrotuaz bezala gañez egiterano goratzen dira ikusiaz ezer ere ordaintzat eskatze-etzuela // ez eta nai ere. Ez bere eleiz orretan patroik, ez edolarik patroikide Uriarekin batean; ez eleizan kapillatxo, edo bereginko aldareren bat: ez obi guzien artean obi gorago, edo zabalago, edo

apainduagoren bat: ez kanpoko edo barrengo pareteetan bere etxeiko arma argituere batzuek: ez edolarik sakristia bietatik batean Leiza ongi-llaren gogoangarri bat. Ezer ere nai ezta orietatik, ezta nai orietarako izengillatu dezaten. Adiezazue nola hitzegiten duen: guzi guzia nai det izan dedin nere ertarrenzat, nere Andoain biozekoarentzat. Arentzat egin ditudan ongite guziaz, bakarrrik egin ditudalako, kontentu gelditzen naiz. Eta, zerbait eskatu bear badet, ezte besterik nai ordaintzat, ezte besterik eskatzen, egin ditudan guzien alde, Andoañek, nere jaieterriak arren ta arren iduki nazala bere seme maitetzat. Gogor zaitzete, albadezute alako jolasa aditu ezkerro.

Ez, aita, ezin gogor-gaitzete. Esker gaistokotzat mundu onek iduki ezkaitzan, ezagutu bear degu, Dn. Agustin zanak bere alegin guziak guretzat izandu dituela: guri ongi naiez bere goraberetan ibilli dala; Andoain bere jaieterri hau, duen isiltasun onetatik, duen izen bagetik, sona ta ots ederretara ateratzeagatik ibilli dala: onako ikusten degun illuntasuna dirudien batetik, ezagutu ez izate bezalako batetik, argitara, ta argi beti dizekanera itzultzeagatik, aritu izandu dala. Aitortzen degu bere ongite parerik bagekoz sartu gaituela bere izenean zekarren leizazuloan: ondatu gaituela Leizaren ongite andien, Leizaren mesede iorien, Leizaren grazia jasaka bezala isurien putzuan, itsasoa bera baño ondorik bageko osin zabalean. Aitormen egiazko onen ondoan, jakin beza mundu osoak ezta la Andoañen arkituko, ez gizonik, ez emakumerik, Leizaganako biotz osoarekin eskerdun eztanik. Geraden guziok egin gaituela eziñ konta alazko zordunak, eta hau dala gure naigabe, ta miñ andia, alako zorrak isiltzeko, eta kitto aietatik gelditzeko, ez biderik, ez modurik, ez eranzukizunik izatea. //

Ez niri orrelakorik: lenago esan dituzutenak, bijoaz ondo: baña azkeneko hitz orrek ezta nigan irago-biderik idoroko, ta orren gañean poztu nai zaituztet eta zabaldu. Leiza zanak egin dizkitzuten on guzi guziak osoro eranzuteko bidea badakit nik, ta aurki adituko didazute. Zordunak egin zaituzte guziok, bera artzekodun egiten dala. Bada esango dizutet bide erraza zuek guztiok aren artzekodunak izateko, eta hura berbera zuen zordun egiteko, ta artzeko izandu danetik zuen zordunera biurtzekotzat: ta ona eranzukizuna ez ezen, kitto gelditzeko, baita garai ta gallendari gelditzeko bide zabala.

Badakizute zer gertatuko lizatekean nik Andoaingo pobretxo bat nere kontura artu ta, Madridera eramane, an nere alegiñez, nere egikariz, nere joan etorriaz, arkitzen banu ate zabalak bat, edo beintzat nere pobretxoa kabi zitekean irriñarteren bat, hura barrera sartzeko, ta Erregearen



aldamenean ipinteko: ta andik ara Erregearen adiskide egiteko, Erregeari bere borondate guzia irabazten ziola, nai zituen eskari, ta mesede guziak egiten ziozkala: eta azkenean Erregeak irakurtza arrigarri batekin bereiten zuela bere ezkutarien artean guzien agintari nagusizat, Erregeak bere urrena egiten zuela? Bai noaski, badakizute. Zorioneko gizona ninzala ni, esango luke munduak, alako eskutura eman nionean pobretxo Andoaingo ari, bere usketatik, ainbat gabetasunetik, lurreko autsetik altxatu ta egoitza ain zabalera sartua, honra guziaz ingurutua paratu nuenean! Baña zer esango zendukete Andoaingo pobretxo arraz? Pobretxo len, ta gero aberats: len ikusteko etzana, gero Españiar guzien ikuskari ikusgarri ederrena; len iñoiz ta iñoren begitarterik izandu etzuen, gero begitarte on guziak, ta begirune lurreraño makurtuak daramatziena; len bordari txar ta mendreen artean ere utsa, gero Erregearen jauregitar, antustez uandituen, zaldun, ezkutari, urreajarioen artean nagusi, agintari, Erregearen beraren oñordeko egiñik: len iyunzi adiña ubazterr horietan erne etzana, gero lizar, edo pago lerdin, udaberria baño mardulago // liranago, ta luzeago; bere gainburuko adarr ostoa arro nastuakin dirudiela eguzkiari bere zeru erpiñean dijoanean, argi errañu guziak nai diozkala itzungi; edo beintzat gogortzen zaiola, aren adarr ostoen artetik argiren izpirik ere eztuela lurra jotzeraino iragoko. Illetegunetarako asko da edergarri.

Orain beste onelako gauzak, bañan goragoak, gorputzez senti ezti-ranak, bai ordea ispirituz, adimentu meetxeaz, Jainkoak ematen diauzkun argiz, fedeak paratzen dizkigun begi garbiz ikusten diranak, Purgatorioa dala siñisten degu: anima aratzen diranak, zerura baño lenago, antxe garbitu bearrak diradela beren pekatu larrien ta barkatuen kutsuetatik, ariñetatik ere, elur malota baño txuriago, orrako zeru urdin puska horiek baño txarmagarriago egiñ artean. Baita siñisten degu emen lur gañean bizi geranok zerbait gozatzen ditugula, arintzen diozkagutela beren naigabe arrigarriak, eta iñoiz edo berriz andikan atera ta zeruan sartzen ditugula. Oiek onela ezarri ta, ona nere ta nere Andoaingo pobretxoaren gertamena.

Nere Andoaingo pobretxo nik atera nuen autsetatik, gauza guzien gabetasunetik, ez zalako moduetatik. Zuk ateratzen dezun anima, ateratzen dezu munduan dan egoitza negargarri, gogor, ta latzetik, suak eta lamak dariozkan etzauntza batetik, emengo labe, sutegi, karobi, ikaztoki, arragoa guziak baño erretzalleago, biziago, miñagoetatik. Nik atera dedan Andoaindarra Jauregi eder batean sartu det, ezkutari, urre-zillarrezko soñekoz janziak daudenen artean. Zuk aterako dezuna, sartuko dezu, izarrak baño goragoko jauregi ederr, iñon ederrik bada, antxe; baña zer

lagunkideen balsan? Aingeruen, santu ta santa guzien balleran; eguzki, illargi, izar andi ta txiki guztiak bere oinpekoak bezala dituela; andik beragoko munduko andiketak, argiketak, diruketak nazkatzen dutela beren ustelez, kiratsez, itsusiaz, goibelez, illuntasun gogaikarriz. Nik atera nuena, jarrierazo nuen erregearen aldamenean, aren gogarako gelditzen zala, aren borondatearen jabe egiten nuela; argandik nai zituen mesedeak beregantzen zituela, ez beretzat bakarrik, baita besteentzat, batez ere bere aide, bere etar // bere adiskide, bere ongilleentzat. Zuk aterako dezuna, paratuko dezu Erregeen Erregearen, alguziko Jainkoaren, zeru-lurren egilearen aurrean, bere eskuan, bere borondatean eskari, mesede, ongite guziak dituenaren aurrean.

Nik Andoaindik atera nuena, egiten det nere egitura, paratzen det nere eskutik Erregearen aldamenean egitura bat niri zorko dizkidanak bere honra ta ondasunak, ta argatik nere gauzak zaitzen egon bear duena. Zuk aterako dezuna, egingo dezu zure egitura: zeruan paratuko dezu egitura miragarri bat, zuri zorko dizuna duen zoriona ta gloria. Badakigu Jainkoaren eskutik dituela on horiek guziok, ta Jainkoa dala guzien iturburu: ordea niri zor dizkit nik atera dedanak artarako bear ziran lanabesak. Niri zor dit arako idoro nion bidea: zein ta garai ta goi dagoen nere egikariz Purgatoriotik atera dana, niri zor dit ain gora mallaz malla bezala iotzea, bada nere egikariz zabaldu nion pendiza ta zubidea. Argatik deitzen diot, dan bezala, nere egitura: ifinten dedala naita ez nere gauzai begiratzeko premian; nere gogo onak, nere oiui andi ta txiki, nere negarrrak naita ez aditzeko premian, nere kalte ta gaitzak kentzeko, eskatzen diozkadan mesedeak neretzat ta besterentzat Jainkoagandik nai ta ez erdiesteko premian. Alabañan ezta zeruan esker gaistoko santurik, ezta Purgatoriotik aratzen eskerdun andi eztanik, ta egin zaizkan ongite guziaz eranzun nai eztuenik amore onez ta biotz osoarekin. Eta orra zer dan zuk zure egikariz anima bat zure egitura egitea, eta zure eskutik Jainkoaren aldamenean ifintea.

Are geiago! Zeruko Santu guziak on da zure adiskide, ta zure alde izatea, aietan zure etxedemen guziak paratzea; bada aletin ta esku andikoak dirade, Jainkoagandik zuretzat bear dituzunak erakarzeko. Bego onetan hau; eta santu guzien artean (gorenak beregain uzten ditudala) egizu zuk maiteago dezunaren aukera. Ematen dizut eta ez doarik, zure santu hori dala andiagoa, askoz goragoa Purgatoriotik ateratzen dezuna baño. Alere adizazu zer diotsudan, obeko dezula bearbada zure onerako anima Purgatoriotik atera dezuna, beste // zure aukerako hori baño: eta jakizu, bata dan bezala, bestea ere santua dala: ezta berdin garbi ta santu



eztanik zeruan sartzen. Ona ordea aien arteko ezirudia. Beste zure santu orrek egin diezakezu mesede larriago bat, esku geiagokoa dan bezala; baña ezta zure egitura, eztizu zuri zor dagoan lekuan inñolazko moduz egotea. Egiten badizu mesede, egiñen dizu naita, eta naitakoak izango dira aren zurekiko ongite guziak bere eskuan duela ez egitea, ta zure eskariz ez malmetitzea; eta egiten dizkitzunak, bearbada, izango eztira ain laster, ain bizi ta ain osoro egiñak, zuk naiko zendukean bezala; alabañan eztaukazu zuk irabazia, eztezu zuk zure egikariz zure zordun egin; ezta zure egitura, ta eztago zure bearrai begiratzeko loturapean. Baña zuk atera dezuna, zure egitura dezu, naita ez zure deiak enzutekoa dago, zure gauzai nai ta ez kobru ematekoa dago, nai dituzun eskari ta ongite gorputzari ta animari dagozkanak, zuzentzeko loturapean daukazu. Zure beste santu orrek bezala eztizu esango mesede egin nai dizula: eskatzen badiozu, zer edo zer esanen dizu, ez didazu mesederik eskatzen, bai zor zaitudana. Eta ona zergatik bear bada obeko dezun Purgatoriotik anima bat zure egikariz atera, ta argana zure bearretan biltzea, beste zure santu orregana baño.

Eldu gera, nere iritzian, gure hitzaldia onen bukaondora. Leiza zanak artzeko arrigarriak ditu zuek guzioetan, ta zuek zordun gelditu zerate argan ta arekiko. Ona oraiñ zor horietatik ateratzeko bide erraza, guziak isiltzeko modua, kitto, ta igoalsu zeren buruok agertzeko ate zabal zabala. Zer da kitto gelditzeko? Baita aren zor guziak pagatu ta argan artzeko miragarriak izateko, nolabaiteko iskiñtxo bat, zeruan jaioa, ta zerutik etorria. Zeiñ da arren iskiñtxo zerutar hori, ate zabal hori, bide erraz hori? Onezkeru jakiña bear zendukete. Zuen egikariz ta alegiñez eramazute eskutikan bezala anima bat zerura, betaz beta sekulako ikusiko duen Jainkoaren aurrera, egizute zuen egitura, eta gertatuko zaizkitzute len aditu dituzutenak. Orrekin bakar bakarrik egingo diozuten ongitea, ain da andia, non argandik artu dituzuten ongite guziak idoroko diraden osoro berdinduak//. Berdinuak? Baita gallenduak eta zuen pekotuak ere!

Ordea hipui-kontua dirudien hori, nola izango da? Guk eztegu gure eskuan zerua, eztegu zeruratzen guk; Jainkoak ematen dio, ez guk, zeruan duen doatsutasuna, eta beti zorionekoa izatea. Eztegu guk orrelako ondasunik, ta eztuenak ezin emango du; eta ematen ezpadiogu zeruan duen ondasuna, gure zor andiak bere oñean daude, ta guziok len bezain zorbe-katuak geldituko gerade. Zer egin da beraz arako zeruko iskintxo araz? Edo zer ta zertara dira gure ollarketak, eta gallendeak? Oi! Eta onelako hitzongikeria besterik ezpalebil zuen artean! Etziñateke ain landugabeak, ta are lankaitzak izango, ta ezlegoke mundua dagoan bezañ moldakaitza,

jakiñezean batua, jakiñezean loakartua, jakiñezean ondatua, jakiñezaren osin ondobagekoan itto ittoa. Ahanzi, aztu zerate nere lengo jolasaz. Egia da, Jainkoak ematen diola Zerua bere doatasun guziakin; baña zuek eman diozute aratzeko bidea, zuek atera dezute Purgatoriotik, suzko garbitegi artatik ango garr eta lametatik; zuek pagatu diozkatzute presoindegi artatik irteteko zor zituen sofrikari andiak, eta pagabide horiek zuek eman diozkatzute; zuenak ziran, Jainkoak lagundu ta, zuenak zuen alegiñak, eta egikariak. Eta edozeñek dakus oraiñ dezutenik, edo zendutenik ematen diozutela, ta ezta hipui kontua len esan deguna.

Beste berrikeratxo bat. Guk Dn. Agustiñez malmetitzen ez gerala, ta argatik ezer ere egite-eztegula, ta onela uzten degula, an egongo da bere pekatuen zorrak azkeneko zurikoraño pagatu artean; baña naiz orañago, naiz geroago, noizbait beteko zaio bere sofrikarien Jainkoak paratu dion epea; eta gure egitekorik bage igoko da zeruko ara. Eta bada hori orrela dala, zerekin ta nola gure zordun egingo degu? Zerekin egiñen gera aren artzekodun? Zerekin ta nola isilduko, kittatuko, ta are gallenduko ditugu aren ongite bazterrik gabeak? Ongi diozute; ezta hori erausi alperra. Ara nola. Edolarik ikusten dezue zuen egikari ta alegin onakin aurreratzen diozutela zerua; eztagu, noiz artean egon bearra zan garbitegi artako suetan ta garretan; bear bada aste osoan, edo urte osoan, edo betarago; eta naiz egun bat bakarrik // lenago, zuen egikariz zeruratzen bada, orra zerekin ta nola aren artzeko guziak kittatuko, ta gaindiro gallenduko dituzuten. Jainkoa ikustea, puntu soill batean ere, ain da ondasun andia, zeñean zuei egin dizkitzuten on, ta ongite guziak, autsak eta keak eta eze-rezak diraden ta diruditen aren aldean. Ain da gauza hau mirestekoa, non ainguru batek, egiten balie ifernukoai hizketa onelako bat, ala doakabe madarikatuak, Jainko aluzizkoaren aldetik diotsutet, ez luzarago, baña beintzat bai puntu soill bakar batean noizbait ikusi bearra zeratela Jainkoaren arpegia; asko lizateke an beren amorrazio guzia galtzeko, borondate osoaz eta pozik ifernu guzia jasotzeko, ta ifernua bera zeru gisakoa egiteko. Ona bada zer on ta ongitez egingo dezuten zordun D. Agustian zana, emen lurtean ain zorr andidunak idukitu zaituztenak.

Ekin bada, nere ertar preziatuak, bakoitzak bere egikari horiei, itxeki, bakoitzak bere saill ederr horri; bada onelako ekitez ta itxekitez, etzerate esker gaistokoak izango, bildur ziñaten bezala; eskerr onekoak bai, ta aintzakotzat artuko zaituzte mundu guzian. Zer dira ordea egikari horiek, gure alegin horiek, gure ekite, ta itxekite horiek, gure ertar zanaren alde egin bear ditugunak? Horiek jakiñak dira. Orretarako dirade gaurko, ta bederatzurren onetako gure egikariak, gure ekiteak, ta gure ibilte oyek.



Onelakoak, bada, ta batez ere, meza santuak Dn. Agustiñ zanari ateratzek, dirade bide lasterrenak, dagoan pena izugarrietatik askatzeko, ta zerura bidaltzeko. Errosarioak, eleizan edo landan, arreta osoaz, gogoia ta biotza Ama Birjiñagan dituzutela, bereganduak daduzka induljenzia eta barkazio ezin konta-alak. Eskeñi zaizkioztue Jainkoari, zuen ertar ongillaren alde, aren gozamenerako ar ditzan; ta bide orrez beñi gitxitu ditzaizkan daramatzen atsekabe garratzak; gero enparaguak, gañerakoak, bigindu, ta zerbait goza ditzaizkan, ta atzenean altxa dezan gora bere zeru ederrera.

Berebat bost aldareak ikustatzea da, lan ta egiteko erraza, baña induljenziaz ta barkazioz // suskitua bezala, batezere Garizumako egunetan. Are Ama Birjiñaren egun andietan, ta beste Santuenetan, konfesa-komulgatzeari darraizkan induljenzia, ta barkazio osoak. Zataizkiote bada beargai horri: erabazi horiek emaitzue Jainkoaren eskuetara, eskatzen diotutela arren ta arren balia dakizkiola zuen guztien ongillari, Dn. Agustin zanari. Or dituzute orrez gañera mezak enzutea, sermoi onak aditzea, eleizan maizago sartzea, Santisimoaren aurrean bere egotaldia egitea. Are badituzute beste bidetxigor anitz, zuen ertarra aldatzeko erretzen daukaten garretatik atsegiñ beti betiko lekura. Geienok urte guzian nekepean bizi zerate, lanean gose ta egarri asko daramazutela: eguzkiaren lamak, bero suzkoak, sargori ustelak udan, izerdipats egiten zaituztela: neguan berriz izotzak, jela erabe girokoak, iparr aldeko aize meegi, ta gogorregiak arkaitzen erakoak uzten ta ormatzen zaituztela: soroetan, basoetan, etxoletan, etxeetan, bearra, nekea, unagarria iori besterik ukitzen eztezutela; ozta ozta egun on bat, pozgarrietako bat, zañen lasaigarri bat arrapatzen dezutela. Ara bada oraiñ, neke horietxek guztiak izan ditezke animai laguntzeko, animen atsedengarrirako, animen gozamenerako, ta orra zer dezuten animen sufrajiorako. Besterik bada eziñ dezutenok, edolarik erakus-zaiozute gure ongillari arganako dezuten borondatea, ta esker onekoak izateko gogoia, ta asmoa; eta artarako arrezazute egun batzuetan goizoro Jainkoari onelako bat esatea: Jauna, gaurko nere lanak, nekeak, nage guziak izan ditezela, Zerorrek ala naita, D. Agustin gurearen aldera, gozamenerako, eta atsegingarrirako.

Baña horiek Jainkoari eder derizkion, ondo ta obeto iritzi dakizkion, ots guziok konfesio-komunio bear danezko batez zuen konzienziak lenago garbitzera. Bestela, esku loi, likitsetatik egiten zaizkan eskeñiak bearbada (eztiot alperrik bearbada) eztitu Jainkoak artu naiko ontzat, ta gure ertarraren onerakotzat. Bestela zuen konzienziak pekatu eriozkoz kutsatuak daudela, ta arjoak bezaiñ ustelak, usanduak ta pozoi ifernuko dario-

tela, balizateke gogoan joko dutela gure biotz oneko Jainkoa, ta eztituela naiko zuen errekuak, otoiitzak, errosarioak, mezak, aldare ikustatzeak, ta beste egikari konfesio on baten ondoan guziz naiko dituenak, ta D. Agustin zanaren alderako artuko dituenak. Ala ere pekatu larrietan // egonagatik, ta konfesio on batera presta zaitetzen arteraño, zakizkiote esan ditugun egikari onai; bada egilleai zerurako balia ezpazaie ere, balia dakizkiote Purgatorioan dagoanari.

Uste det, baita siñisten ere, alaise egingo dezutela guztiok. Eta ezutela galduko, zergatik nik eskatzen dizutedan. Lenagoko nere errenkura piska aiek ez naukate itsutua: ezagutua daukat gure ongille onen ta ongillaren gañean zer ta zenbat zor zaion Andoain erri noble oni. Hau berau ezagutu zuen ta aitortua zedukan Dn. Agustiñek berak; eta argatik bizi zanean, Andoañek egiten ziozkan honradiai erakutsi zien bere ezin geiagoko borondate eskergillea, andikan bialdu zituen kartetan agiri dan bezala. Gerozkoetan nerau naiz lekukorik, testigurik onena, Andoañek egin dituela, Deabruaren damutan, Dn. Agustin zanak bere jaieterri onentzat nai zituen gauzak. Eta naiz arazo, ta naspilla, ta eragotzi naiak sortu dituela etsai gaistoak, gauza on andietan gertatu oi dan bezala, baña ala ere Andoañek zeruko argiaz, arrazoiari jarraituaz, Jainkoaren laguntza ta grazia andiarekin, garaitu dituela eragozgarri guziak, ezinkizun andiak, ta ifernu guziaren amorrazio pozoiez beteak, eztanda gori ta lerr egiten dutela an bizi diran demonio guziak. Esan ditudan oiekgatik, pozik, ta gozoro ematen diozkat Andoain nere jaieterriari, eskerrik asko ta iori; eta bukatzeraño, ta bukatzeko dauden eginkizunagatik, gaurdanik aurreratzten diozkat beste ainbeste eskerrik asko ta iori. Eta oraiñ len esan dedanari nagoka, uste dedala, baita sinisten ere, guztiok egingo dituzutela gure ongillaren alde, len esan ditudan egikariak, eta alegin onak.

Bide orrezaz egiñen dezute alde batetik Dn. Agustin zana zuen guztien egitura, zuen alde beti bearko duena, zuen negarretan gortu ezin datekeana, zuek zaitzeko dagoana etsaien perilletatik, zuen utsuneak, eta gabeak betetzeko dagoena, zuen okerrak zuzentzeko, zuen eri-aldiak sendatzeko; zuen osasunak, indarrak, biziak, bere eskupean idukitzeko dagoana: oiek ta beste bearko dituzuten ongiak ta ondasunak, Jainkoak nai duen neurrian, guzien gañera isurtzeko dagoena, ta beti beti egongo dana. Hori guzia zergatik? Zerren arestian nion bide arzaz beraz, zuek egin dezuten zuen zordun; zerren gaitzetatik atera ta, on guzien barrena sartu dezuten; zerren sekulako doatsu egin dezuten, ta zorioneko santuen lagun; zerren Jainkoa aurkez aurke ta dan bezala ikusteaz, paratu dezuten pozik andienetan, atsegin gozoztenetan, gloriarik Jainkozkoenetan.



Biz ala, Jainko alguzietakoa, ala izan dedilla, Jesus gure maitagarria, ta onetsia. Atsedeen dezala bada, Dn. Agustin zanak, beti ta betiko zure amodiozko besoetan. Atsedeen dezala zure santu, ta aingeru guzien balle-ran. Atsedeen dezala munduaren astetik prestatu zinion jartoki argitsuan. Atsedeen dezala zure zeru zabalean. Atsedeen dezala zure gloria kaburik bagekoan. Atsedeen dezala zure, ezti guziak baño gozoago dan, pake ederean. *Requiescat in pace.*

BURGOSKO KRISTAU IKASBIDEA

† IKASBIDEA

KRISTAUEN DOKTRINA

Azalketa laburrakin, galdeaz, ta eranzuteaz.

Len Aita Gaspar Astete Jesusen Konpaniakoak Gaztelaniaz: Ta orain beste Jesuita batek Euskeraz ezarria.

Milla ta zazpieun, ta berrogeta zazpigarren urtean.

Bear diran ongidagoakin.

Burgosen. Konpañiako Hizkiroian.

KRISTAUEN DOKTRINA-RAKO SARRERA

Kristau fiel guziak daude txit beartuak artzera debozioa beren biotz osotik Jesus gure argiaren Gurutze Santuarekin.

Ezen an hil nai izan zuen gu erosi, ta ateratzearren pekatuaren mendetik, eta etsai gaiztoetatik.

Orregatik bada oitu bear zera, ala ziñatzera, nola santiguatzera hiru gurutze egiñaz. Lenengoa bekokian jainkoak libra gaitzan pensamentu gaiztoetatik. Bigarrena aoan, Jainkoak libra gaitzan hiz gaitztoetatik. Hirugarrena bularrean Jainkoak libra gaitzan obra, ta gogo gaiztoetatik, gisa onetan esanaz. Gurutze † santuaren señaleagatik Gure † etsaietatik libra-gaitzatzu gure † Jauna, ta Jainkoa. Aitaren, ta semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Ala biz.

Aita gurea

Aita gurea, zeruetan zaudena, santifika bedi zure izena, betorkigu zure erreinoa, egin bedi zure borondatea, nola zeruan, ala lurrean. Egun iguzu gure egun oroko ogia. Eta barka zaizkigutzu gure zorrak, guk gure zordunai barkatzen dieztegun bezela. Eta ez gaitzatzula utzi tentazioan erorten. Baizik libra gaitzatzu gaitzetik. Ala biz.



Ave Maria, *edo* Agur Maria

Agur Maria, graziaz betea, Jauna da zurekin, bedeikatua zu andre guzieren artean, ta bedeikatua da zure sabeleko frutua, Jesus. Santa Maria, Jainkoaren Ama, erregu ezazu gu pekatariok gatik, orain, ta gure eriotza-ko orduan. Ala biz.

Kredoa, *edo* sinisdeta

Sinisten det aal guziko Aita Jainkoagan, zeña dan Zeruaren, ta lurra- ren egillea. Eta aren seme bakar JesuKristo gure Jaunagan, zeña sortu zan Espiritu Santuaren obraz, ta graziaz. Jaio zan Maria Birjinagandik. Padezitu zuen Ponzio Pilatosen mendean. Izandu zan gurutzefikatua, hilla, ta ehortzia. Jatxi zan ifernuetara, hirugarren egunean piztu zan hillen artetik. Igo zan zeruetara: an dago jarririk aal guzizko Aita Jainkoaren eskueyan. Andikan etorriko da biziak eta hillak juzgatzera. Sinisten det Espiritu Santuagan: Eliza Katholika, edo guziakikoa: Santuen partaleta- suna, edo Komunioa: pekatuen barkazioa: aragiaren piztea: bizitza beti- koa. Ala biz, edo Amen.

Salvea *edo* Agur Erregina

Salve Erregiña, Ama miseriakordiazkoa, bizitza, gozoa, ta esperanza gurea.

Agur, ta zuri gagozkitzu Ebaren hume erbestetuak suspirioz, plañuz, ta negarrez ibar negarretako onetan. Ea bada, bitarteko gurea, gugana itzatzu zure begi urrikarrizko oriek, eta deserrite onen ondoren erakus- kuzu Jesus, zure Sabeleko frutu bedeikatua. O! guziz beraa! O! urrikarri- sua! O! Maria Birjina gozoa! Erregezazu gugatik, Jainkoaren Ama. Egin gaitean Kristoren promesen diña. Amen.

Jainkoaren Legeko Aginteak dira amar

Lenbiziko hirurak dagozkio Jainkoaren honrari, beste zazpiak lagun urkoaren onari. Lenbizikoa da Jainkoa amazea gauza guzieren gañean.

Bigarrena, ez juramentu alperrik egitea, aren izen santua gaizki erabilliaz. Hirugarrena, jai egunak santukiro gordetzea. Laugarrena, aita, eta ama honratzea. Bosgarrena, ez iñor hiltzea. Seigarrena, aragizko pekatu- rik ez egitea. Zazpigarrena, ez ebastea, edo ez ostutzea. Zortzigarrena, ez falso testimoniorik ez gezurrik esatea. Bederatzigarrena, iñoren emazterik ez nai izatea. Amargarrena, besteren ondasunik ez gutiziatzea. Amar aginte oyek bitara datoz: Jainkoa serbitzera, ta gauza guzieren gañetik onestera, ta zure lagun urkoa zere burua bezala. Ala biz.

Fedearen Artekoak dira amalau

Lenbiziko zazpiak dagozka Jainkotasunari, beste zazpiak Jesu-Kristo gure Jaun ta Jainko, ta gizon egiazkoaren gizatasun santuari.

Jainkotasunari dagozkanak dirade oyek

Lenbizikoa, sinistea Jainko aal guziko bakar bategan. Bigarrena, sinistea dala Aita. Hirugarrena, sinistea, dala semea. Laugarrena, sinistea dala Espiritu Santua. Bostgarrena, sinistea dala Kreatzallea. Seigarrena, sinistea dala Salbatzallea. Zazpigarrena, sinistea dala Glorifikatzallea.

Gizatasun Santuari dagozkanak dirade oyek

Lenbizikoa, sinistea Jesu Kristo gure Jauna, gizona danez, sortu zala Espiritu Santuaren egitez. Bigarrena, sinistea, jaio zala Maria Birjina Santagandik, zalarik Birjina erdi baño len, erditzean, ta erdi ezker- o. Hirugarrena, sinistea artu zuela eriotza ta pasioa, gu pekatariok salba- tzeagatik. Laugarrena, sinistea jatxi zala ifernuetara ta atera zituela aren etorreraren zai zeuden guraso santuen animak. Bostgarrena, sinistea hiru- garren egunean piztu zala hillen artetik. Seigarrena, sinistea igo zala zeruetara, an dagoala eserita Aita Jainko aal guzikoaren eskueyan. Zazpigarrena, sinistea etorriko dala biziak eta hillak juzgatzera. Esan nai du, onai gloria ematera, zergatik aren aginte santuak gorde zituzten: ta gaiztoai pena beti iraungarria, zerren gorde etzituzten. Ala biz.



Kristauen Doktrina-ren azaldura, edo deklarazioa, galdez, ta erantzutez

- GALD. Zu Kristaua zera?
 ERANZ. Bai Jainkoaren graziaz.
 G. Nondik datorkizu Kristauaren izen hori?
 E. Jesu-Kristo gure Jaunagandik.
 G. Zer esan nai du Kristauak?
 E. Kristoren gizona.
 G. Zer aditzen dezu Kristoren gizonaz?
 E. Jesu-Kristoren fedea duena, zeña dan batayoan artu zuena, eta geroztanik bera serbitzera agindua dagoena.
 G. Zein da Kristauaren señaleara?
 E. Gurutze santua.
 G. Zergatik?
 E. Zerren dan Kristo gurutzefikatuaren irudia, zeñean erosi ginduen.
 G. Zenbat gisatara egiten du kristauak señaleara hori?
 E. Bitara.
 G. Zein dira?
 E. Ziñatzea ta santiguatzea.
 G. Zer da ziñatzea?
 E. Da eskuyeko beatz lodiatz hiru gurutze egitea. Lenbizikoa beko-kian. Bigarrena aoan. Hirugarrena bularrean, gure Jainkoari gagozkala.
 G. Erakutsi nola.
 E. Gurutze santuaren señalearatik gure etsaietatik libra gaitzatzu gure Jainkoa.
 G. Zergatik ziñatzen zera bekokian?
 E. Jainkoak libra gaitzan pensamentu gaiztoetatik.
 G. Zergatik aoan?
 E. Jainkoak libra gaitzan hitz gaitztoetatik.
 G. Zergatik bularrean?
 E. Jainkoak libra gaitzan egite ta gogo gaiztoetatik.
 G. Zer da santiguatzea?
 E. Eskuieko beatz biakin gurutze bat egitea, bekokitik bularrera, ta ezkerreko besaburutik eskuiekora, Hirutasun santuari gagozkala.
 G. Erakutsi nola.
 E. Aitaren, ta Semearen, ta Espiritu Santuaren izenean. Amen.
 G. Noiz egin bear dezu señaleara hori?

E. Noiz eta egiteren bat asitzen degun, edo ikusten geran bearren batean, tentazio ta perillean; batez ere oetik jaikitzean, etxetik irtetean, Elizan sartzean, jaterakoan, ta oyerakoan.

G. Zertarako ainbestetan?

E. Zerren beti ta leku guzian darraizkun gure etsaiak eta gudukatzen gaituzten.

G. Zer etsai dira horiek?

E. Demonioa, mundua ta aragia.

G. Beraz badu gurutzeak horien kontrako indarra?

E. Bai, Aita.

G. Nondikan du gurutzeak indar hori?

E. Antxe Kristok bere eriotzarekin garaitu zituelako.

G. Gurutzea adoratzetan nola esaten dezu?

E. Adoratzen ta bedekiatzen zaitugu Kristo, zerren zure gurutzearen birtutez mundua erosi zenduen.

Kristau Doktrinaren berezidea.

Ikusi degu nola zeran Kristaua Kristauaren izenez ta señaleara. Baña esadazu orain.

G. Zenbat gauza Kristauak jakin bear ditu bearrez, arrazoiaren usu ta argitara datorrenean?

E. Lau gauza.

G. Zein dirade?

E. Jakitea zer sinistu, zer eskatu, zer egin, eta zer artu bear duen.

G. Nola jakingo du zer sinistu?

E. Jakinaz Kredoa, edo sinisdeta, eta fedearen artekoak.

G. Nola jakingo du zer eskatu?

E. Jakinaz aita gurea ta Elizaren beste gañerako eskabideak.

G. Nola jakingo du zer egin?

E. Jakinaz Jainkoaren legeko aginteak eta Eliz Ama Santarenak, ta urrikarimenezko ekintzak.

G. Nola jakingo du zer artu?

E. Jakinaz Eliz Ama Santaren Sakramentuak.

Doktrinaren lenbiziko partea zeñean azaltzen dan Kreda ta fedearen artekoak.

G. Lenbizikora gatozen. Esazu, nork esan zuen sinisdeta.

E. Apostoloak, edo Kristok bialduak.



- G. Zertako?
 E. Guri fedearen gauzak adierazitzeko.
 G. Eta zuk zertako esaten dezu?
 E. Kristauak degun fedea au beratu aitortzeko.
 G. Zer gauza da fedea?
 E. Ikusi ezteguna sinistea.
 G. Jesu-Kristo jaiotzen ikusidezu?
 E. Ez Aita.
 G. Ikusi dezu hiltzen, edo zeruetara igotzen?
 E. Ez Aita.
 G. Sinisten dezu.
 E. Bai Aita, sinisten det.
 G. Zergatik sinisten dezu?
 E. Zerren gure Jainkoak ala agertu dion Eliz Ama Santari, ta onek ala erakasten digun.
 G. Zer ta zein dira Kristauari dagokan bezala daukatzun ta sinisten dituzun gauzak?
 E. Erromako Eliz Ama santak daukatzienak ta sinisten dituenak.
 G. Zein dira Ark eta zuk sinisten dituzutenak?
 E. Fedearen artekoak, batez ere kredoari, sinisdetari, ditzeskanak.
 G. Zer gauza dira fedearen artekoak?
 E. Dirade aren misteriorik larrienak, garaiusterik andienak.
 G. Zertako dira fedearen artekoak?
 E. Gure Jainkoaren ta JesuKristo gure Eroslearen berri ta ezagera banaro emateko.
 G. Zer ta zein da gure Jainkoa?
 E. Da esan al, ta gogora al ditekean gauzarik garaien ta miragarriena, Jaun bat finikgaberona, aal guziaren jabea, jakintsua, justua, ta gauza guzieren asiera ta bukaera.
 G. Hirutasun guziz santua zein ta zer da?
 E. Da Jainkoa bera, Aita, Semea eta Espiritu Santua, hiru persona bana diranak eta Jainko bakar egiazko bat.
 G. Aita Jainkoa da?
 E. Bai, Aita.
 G. Semea Jainkoa da?
 E. Bai, Aita.
 G. Espiritu Santua Jainkoa da?
 E. Bai, Aita.
 G. Eta dirade hiru Jainko?

- E. Ez, Aita, baizikan Jainko egiazko bakar bat.
 G. Aita bada semea?
 E. Ez, Aita.
 G. Espiritu Santua bada Aita edo Semea?
 E. Ez, Aita.
 G. Zergatik?
 E. Zergatik personak bana diran, izan arren Jainko egiazko bakar bat.
 G. Nola da Jainkoa aaltia, aal guzikoa?
 E. Zeren bere aal bakarrez egiten duen nai duen guzia.
 G. Nola da Kriatzalalea?
 E. Zeren gauza guztiak ezereztik egin zituen.
 G. Nola da Salbatzalea?
 E. Zeren grazia ematen duen eta pekatuak barkatzen dituen.
 G. Nola da Jainkoa gloriatzalalea?
 E. Zeren gloria ematen dion aren grazian irauten duenari.
 G. Badu Jainkoak guk bezala irudi gorputzarenik?
 E. Jainkoa dan bezanbat ezta zergatik dan Espiritu uts nasgabea: baña bai gizona dan bezanbat.
 G. Jainkozko hiru personetatik zein egin zan gizon?
 E. Bigarrena, zeña dan semea.
 G. Aita egin zan gizon?
 E. Ez, Aita.
 G. Espiritu Santua egin zan gizon?
 E. Ez, Aita.
 G. Zein bada?
 E. Bakarrik Semea, gizon eginta Jesu-Kristo deritzana.
 G. Orrela beraz, nor da Jesu-Kristo?
 E. Jainko biziaren Semea, gu erosteagatik, ta bizimodua guri erakasteagatik, gizon egin zana.
 G. Zer esan nai du Jesusen hitz onek?
 E. Salbatzalea.
 G. Zertatik salbatu ginduen?
 E. Gure pekatutik, eta demoni[o]aren menpetik.
 G. Zer esan nai du Kristok?
 E. Ganzutua edo unjitua.
 G. Zerzaz ganzutua izan zan?
 E. Espiritu Santuaren graziaz ta doaiez.
 G. Jesu-Kristo gure Jauna nola sortu ta jaio zan Birjina zan Amagandik?



- E. Jainkoa zitzekala mirariz, ta izakiz gañera.
 G. Aren Ama gero beti Birjina bizitu zan?
 E. Bai, Aita, beti ta betiro,
 G. Zergatik gurutzeko eriotza autatu zuen?
 E. Gu pekatutik ta eriotztik libratzeagatik.
 G. Zer adizen dezu Jesu-Kristo gure Jauna hil ondoan jatxi zan ifer-
 nu arzaz?
 E. Ez doakabeen tokia, baizikan justuak, doakarriak, zeuden linboa
 deritzan leku hura.
 G. Nola jatxi zan?
 E. Animaz Jainkotasunari bataturik.
 G. Eta bere gorputza nola geratu zan?
 E. Jainkotasun berarekin batatua.
 G. Hirugarren egunean nola piztu zan?
 E. Berriz batatzen ziradela aren gorputz ta anima gloriatsua, ez geia-
 goren geiago hilzeko.
 G. Nola igo zan zeruetara?
 E. Bere aalez ta birtutez.
 G. Zer da Aita Jainkoaren eskuiean eserita egotea?
 E. Jainkoa danez ark adinbat gloria izatea, ta gizona danez edozeñek
 baño geiago.
 G. Noiz etorriko da hillak eta biziak juzgatzeraz?
 E. Mundu onen bukaeran ta akaballan.
 G. Eta hil guziak piztu bearrak dira orduan?
 E. Bai, Aita; ta beren lenagoko gorputz eta anima berakin.
 G. Zer sinisten dezu diozunean santuen partaletasuna, Santuen
 Komunioa?
 E. Fededun guziak partzoner dirala ondasun animari egokietan, gor-
 putz baten bizakai, menbroak bezela, zeña dan Eleiza.
 G. Zer da Eleiza?
 E. Da kristau fededunen batzarrea, zeñen burua dan Aita Santua.
 G. Nor da Aita Santua?
 E. Erromako Apaiz nagusia, lurrean Kristoren ordekoa, zeñi baitez-
 pada guziok obeditu bear diogun.
 G. Sinisdetaz ta artekoaz gañera besterik sinistatzen dezu?
 E. Bai, Aita, Eskritura Sagraduan dagoena eta bere Eleizari Jainkoak
 agertu diozkan gauza guziak.
 G. Eta zer gauza dira horiek?

- E. Ez niri hori galdetu, jakiñeza naizan oni; baditu Elizama santuak
 eranzuten jakingo dutenak.
 Ongi diozu. Erakasleai dagote, ez zuri, kontu ematea txego ta
 luzeago fedeko gauzetan; zuentzat asko da artekoen kontu ematea, sinis-
 detan, edo kredoan, dauden bezala.
- Doktrinaren bigarren partearen zenean azaltzen dan eskatu bear dana ta Eliz-ama
 santuaren otoitzak edo orazioak.*
- Ikusi degu nola dakizun sinistu bear dana, eta zan aurrena; gatozen
 bigarrenez eta da eskatu bear dana.
 G. Esazu, nork esan zuen Aita gurea?
 E. Jesu-Kristok.
 G. Zertako?
 E. Otoiz egiten guri erakasteko.
 G. Zer da errege edo otoitz egitea?
 E. Da Jainkoagan biotza jasotzea, mesede eske gagozkala.
 G. Aita gurea esatean norekin hitzegiten dezu?
 E. Gure Jauna ta Jainkoarekin.
 G. Eta non dago gure Jainkoa?
 E. Leku guzietan, berezkiro Zeruan ta aldareko Sakramentu txitez
 santuan.
 G. Zein da otoitzen, edo orazioen artean onena?
 E. Aita gurea.
 G. Zergatik?
 E. Zerren apostoloak eskatu ta Kristok bere aoaz esan zuen.
 G. Zergatik geiago?
 E. Zerren zazpi eskari dituen karidade osoan ondekidatuak.
 G. Zein dira?
 E. Lenena santifika bedi zure izena.
 G. Zer eskatzen dezu eskari orretan?
 E. Jainkoaren izena ezagutua ta honratua izan dedilla mundu guzian.
 G. Zein da bigarrena?
 E. Betorkigu zure Erreinoan.
 G. Zer eskatzen dezu eskari orretan?
 E. Erregiña dezala Jainkoak gure animetan, emen lurrean graziaz ta
 digula gero gloria.
 G. Zein da hirugarrena?
 E. Egin bedi zure borondatea nola zeruan ala lurrean.



- G. Zer eskatzen dezu eskari orretan?
 E. Dagigula Jainkoaren borondatea lurrean gaudenok, doatsuak zeruan bezala.
 G. Zein da laugarrena?
 E. Egun iguzu gure egunoroko ogia.
 G. Zer eskatzen dezu eskari orretan?
 E. Digula Jainkoak gorputzari dagokan mantenua ta animarentzat graziarena ta sakramentuen janaria.
 G. Zein da bostgarrena?
 E. Barka zaizkigutzu gure zorrak, guk gure zordunai barkatzen diez-tegun bezela.
 G. Zer eskatzen dezu eskari orretan?
 E. Jainkoak barka degizkigula gure pekatuak guk laidotu ta gaitz egin digutenai barkatu diegun bezala.
 G. Zein da seigarrena?
 E. Ezkaintzula utzi tentazioan erorten.
 G. Zer eskatzen dezu eskari orretan?
 E. Ezkaintzala Jainkoak utzi deabruak pekatuan eroriazteko dakaiz-kun tentazioetan; ez eta aren gogoeta lizun zikinetan erorten.
 G. Zein da zazpigarrena?
 E. Baizikan libra gaitzatzu gaitzetik.
 G. Zer eskatzen dezu eskari orretan?
 E. Jainkoak libra-gaitzala animaren ta gorputzaren gaitz eta perill guzietatik.
 G. Baña zergatik esaten dezu asieran Aita gurea zeruetan zaudena?
 E. Biotza Jainkoagana jasotzeko, ta ari humiltasunez ta fidanziaz eskatzeko.
 G. Azkenean diozun hitz ark, *Amen* zer esan nai du?
 E. Esan nai du ala biz, ala izan dedilla.
 G. Zer otoitzak, orazioak, esaten-diozkatzu bereizkiro guzien artean Ama Birjinari?
 E. Agur Maria, edo Ave Maria, ta Agur Erregiña, edo Salve Erregiña.
 G. Esadazu, nork esan zuen Agur Maria?
 E. Aingeru San Gabriele, etorri zanean Ama Birjinari bein agur eginta gero berrionak ematera.
 G. Nork esan zuen Salvea, edo Agur Erregiña?
 E. Zana zala, Eleiz Ama Santak beretzatua dauka.
 G. Zertarako?
 E. Ama Birjinari fabore eskatzeko.

- G. Agur Maria, eta Agur Erregiña esatean, nori zagozkio?
 E. Gure Ama Birjina andre txitezko santari.
 G. Zein da Ama Birjina gure Andrea?
 E. Da andre bat birtutez betea, Jainkoaren Ama, ta zeruan dagoena.
 G. Eta aldarean dagoena zein da?
 E. Da Zeruan dagoanaren irudia. ta aren anza duena.
 G. Eta an zertako dago?
 E. Aren bidez oroi-gaitezen zeruan dagoenaz, ta onen irudia dalako dagiogun agur. M. Bada orobat egin bear diezu beste santuen anz eta irudi guziaz.
 G. Eta are egin bear diegu erregu ta otoitz aingeruai ta santuai?
 E. Bai, Aita, gure bitartekoai bezala.
 G. Aingeruak zer dira?
 E. Dirade Jainko dakusten espiritu doatsu batzuek.
 G. Zertako Jainkoak egin zituen?
 E. Beti kaburik gabe bedeika ta alaba dezaten.
 G. Ta are zertako geiago?
 E. Bere ministroak bezala Eleiza goberna dezaten, ta gizonak zaitu ditzaten.
 G. Beraz zuk ere zaitzen zaituen aingerua badezu?
 E. Bai badet, ta gizon bakoitzak badu berea. M. Bada arr ezazu arga-na jaiera andia, ta egunoro enkomenda zatzaizka.

Hirugarren parte, zeñean azaltzen dan egin bear dana.

- Ikusi degu nola dakizun zer sinistu ta zer eskatu bear dezun. Dakuskun orain nola dakizun zer egin bear dezun.
 G. Esazu. Zein da Jainkoaren Legeko lenbiziko agintea?
 E. Jainkoa onestea gauza guztien gañean.
 G. Nork onesten du Jainkoa?
 E. Aren aginteak gordetzen dituenak.
 G. Zer da Jainkoa gauza guzien ganean onestea?
 E. Guziak galtzea naiago bera ofenditzea baño.
 G. Zertara geiago obligatzen gaitu aginte onek?
 E. Gorputz ta animaren gurgite andienaz bera bakarrik adoratzera, argan sinisten, ta esperatzen degula fede bizi batez.
 G. Nork onen kontra pekatzen du?
 E. Jainko eskuz egiñak adoratu ta aietan bere sinisturreak ifinten ditzuenak.



- G. Nork geiago?
 E. Aztinanzetan sinisten duenak, edo sorginkerietan, edo beste gauza dongedeetan.
 G. Zein da bigarrena?
 E. Ez juramentu alperrik egitea aren izen santua gaizki erabilliaz.
 G. Eta nork juramentu alperrik egiten du?
 E. Egjarik gabe, justiziarik gabe, ta premiarik gabe egiten duenak.
 G. Eta ezeri eztagokala kriaturakgatik juramentu egitea pekatu da?
 E. Bai, Aita; ezen aietan egilleari, Kreatzalleari, egitenzaio.
 G. Zer oskai, edo erremedio, ez alperrik juramentu egiteko?
 E. Oituztea esatera ez, edo bai, Kristok erakusten digun bezala.
 G. Zein da hirugarrena?
 E. Jaiegunak santukiro goardatzea.
 G. Jaiegunak nork ala goardatzen ditu?
 E. Meza osoa enzun ta lanik premia gabe egiten eztuenak.
 G. Zein da laugarrena?
 E. Aita ta ama, edo gurasoak, honratzea.
 G. Nork honratzen ditu gurasoak?
 E. Obeditzen, laguntzen, ta begirunetzen dituztenak.
 G. Nor besterik aditzen da gurasoen izenez?
 E. Adinean, diñ[id]adean, ta gobernuan nagusiago diranak.
 G. Zein da bostgarrena?
 E. Ez iñor hiltzea.
 G. Zer agintzen da aginte onetan?
 E. Iñori gaitzik ez egitea, egitez, hitzez, ez eta gogoz ere.
 G. Zein da seigarrena?
 E. Aragizko pekatuak ez egitea.
 G. Zer agintzen da aginte onetan?
 E. Izan gaitzela garbi ta kasto gogoetan, hitzetan, obretan.
 G. Zein da zazpigarrena?
 E. Ez ebastea, edo ez ostutzea.
 G. Zer agintzen da aginte onetan?
 E. Ez kendu, ez iduki, ez nai izatea besterena, bere jabearen borondatearen kontra.
 G. Zein da zortzigarrena?
 E. Ez falso testimoniorik ez gezurrik esatea.
 G. Zer agintzen da aginte onetan?
 E. Arinkiro lagun urkoaz ez juzgatzea, ta aren utsaldeak ez esatea, ta ez aditzea.

- G. Nork austen du aginte au?
 E. Arrazo[er]rik gabe juzgatzen ta galosten, ta gaizki esaka dabillenenak, iñoren goarpea agertzen duenak, eta gezurra dionak.
 G. Zer debekatzen da bederatzigarren ta amargarren agintean?
 E. Zentzunen gutziak, ta aziendaren eresiak. M. Esaitzu Eliz-Ama Santaren aginteak.

Eliz-Ama Santaren aginteak dirade bost.

Lenbizikoa, meza osoa enzutea igande ta jaiegun guzietan. Bigarrena, urtean bein bederik aitortzea, edo lenago bildurrik bada hiltzeko perillik izanen dala. Hirugarrena, paskoa loratueta komulgatzea. Laugarrena, Eliz-Ama Santuak agintzen duenean barautzea. Bostgarrena, amarren, primiziak pagatzea.

- G. Zertako dira aginte oiek?
 E. Jainkoarenak obeto goardatzeko. M. Esaitzu miseriakordiazko eginbideak.

Urrikalmeneko egin-bideak dira amalau; zazpi espirituari ta beste zazpi gorputzari dagozkionak.

Lenbizikoa, jakinezai erakatea. Bigarrena, bear duenari konseju on ematea. Hirugarrena, uts egiten duena oarterazoaz zuzentzea. Laugarrena, irañak barkatzea. Bostgarrena, tristeak kosolatzea. Seigarrena, gure urkoen gertakari latzak ta argaltasunak pazienziaz eramatea. Zazpigarrena, biziak gatik ta hillak gatik Jainkoari erregutzea, otoiz egitea.

Gorputzari dagozkan zazpiak dirade oiek.

Lenbizikoa, heriak bisitatzea. Bigarrena, gose danari jaten ematea. Hirugarrena, egarri danari edaten ematea. Laugarrena, kautiboa erreskatatzea. Bostgarrena, bilusgorria janzitzea. Seigarrena, kanpotarrari, lekor-tarrari, ostatu ematea. Zazpigarrena, hillak ehortzitzea, lurperatzea.

- G. Zergatik derizte urrikalmenekoak?
 E. Zeren diran justiziaz zor eztiranak.
 G. Eta noiz zor dira agintez?
 E. Gizon jakintsuen iritzira pisuak diran estutasunetan.



Laugarren partea zeñean azaltzen diran artu bear diraden sakramentuak.

Ikusi degu nola dakizun zer sinistu, zer eskatu, ta zer egin bear dezun. Dakuskun nola dakizun zer artu bear dezun; eta da atzeneko gauza. Esaitzu sakramentuak.

Eliz-Ama Santaren sakramentuak dira zazpi.

Lenengo bostak bearrezkoak dira, izatez, edo borondatez; eta oiek gabe ezin salba di[te]ke gizona, ajolakabez ta mezprezios uzten baditu. Beste biak dira borondatezkoak. Lenbizikoa, bateoa, bataioa. Bigarrena, indargeioa, konfirmazioa. Hirugarrena, miñarikoa, penitentzia. Laugarrena, komulgazioa, komunioa. Bostgarrena, azkeneko oleazea, extrema-unzioa. Seigarrena, ekidra, ordena. Zazpigarrena, ezkontza, matrimonia.

G. Zer gauza dira sakramentuak, edo ezkutapeak?

E. Dira JesuKristok emanikako señale agirian dauden batzuek, aien bidez guri emateko bere grazia ta birtuteak.

G. Zer gauza da grazia?

E. Da izate Jainkozko bat, gizona Jainkoaren seme egiten duena, baita zeruaren jabegai, primo edo heredero.

G. Zer birtute graziarekin batean sakramentuak ematen dituzte?

E. Bereizkiro hiru, theologalak deritzenak, edo Jainkoarekikoak.

G. Zein dira?

E. Fedea, esperanza, ta karidadea.

G. Zer da fedea?

E. Ikusi ezteguna sinistea, zeren Jainkoak ala erakutsi duen.

G. Zer gauza da esperanza?

E. Gloriaren zai egotea, edo esperatzea, Jainkoaren graziaz, eta gure obra onen bidez.

G. Zer gauza da karidadea?

E. Gauza guzien gañetik Jainkoa amatzea, ta lagun urkoak gerok bezala egiten diotegula aiek guri egitea naiko gendukeana.

G. Zertako da ifinia bateoko Sakramentua, edo ezkutapea?

E. Kentzeko pekatu jatorrizkoa, eta beste edozein, bateatzen dan argan arkitzen dana.

G. Zer da jatorrizko pekatua, edo orijinala?

E. Guziok arekin jaiotzen gerana ta lenbiziko gurasoetatik datorriguna.

G. Zertako da konfirmazioko, edo indargeioko ezkutapea?

E. Gu indargeitzeko ta sendoagotzeko bataioak eman zigun fedean.

G. Zertako da penitentiaren edo miñarikoaren sakramentua?

E. Bataioa ezker egindako pekatuak barkatzeko.

G. Zer pekatu dira oriek?

E. Eriozkoa ta ezeriozkoak, mortalak edo benialak.

G. Zer da pekatu eriozkoa, edo pekatu mortala?

E. Da esatea, egitea, pensatzea, edo zerbait nai izatea Jainkoaren

Legearen kontra gai pisuren batean.

G. Zergatik deritza eriozkoa?

E. Zerren egiten duenaren anima hiltzen duen.

G. Zenbat parte ditu penitentiak pekatu eriozkoa kentzeko?

E. Hiru.

G. Zein dira?

E. Biotzeko damua, aoko aitormena, ta obrazko askiestea, edo satisfakzioa.

G. Eta bear ote du batek pekatu eriozkoan jautzen dan guzian bereala konfesatu barka dakion?

E. On litzateke; ezta ordea bearrezkoa.

G. Bada zer egin bear du?

E. Izan bere pekatuen egiazko urrikimentua, artu ontzeko gogo bizia, asmo indartsua, eta konfesatu Eliz-Ama santak agintzen duenean.

G. Ezeriozko pekatua, deritzana beniala, edo ariña, zer da?

E. Da prestamen bat eriozko pekatuak.

G. Zergatik deitzen da beniala, edo ariña?

E. Zergatik ariñago gizona artan erorten, ta ariñago barkatzen zaion.

G. Zenbat gauzaren bidez barkatzen zaio?

E. Bederatziren.

G. Zein dira?

E. Lenbizikoa, meza enzuteaz. Bigarrena, komulgatzeaz. Hirugarrena, aitormen jeneralaz. Laugarrena, ipiztikuaren bendizioak. Bostgarrena, ur bedeikatuaz. Seigarrena, ogi bedeikatuaz. Zazpigarrena, Aita gurea esateaz. Zortzigarrena, sermoia enzuteaz. Bederatzigarrena, bularra jotzeaz Jainkoari barkazioa eskatzen zaiola.

G. Zertako da komunioko sakramentu txit santua?

E. Diñaro, ta bear dan bezala artuaz izan dedin gure animen janaria, eta geitu diezagun grazia.

G. Zer artzen dezu komunioko sakramentu guziz santuan?



E. Kristo, Jainko ta gizon egiazkoa, aldareko sakramentuan egiazki dagoena.

G. Zertako da oleazio, atzeneko sakramentua?

E. Hiru gauzatarako.

G. Zein dira?

E. Lenena, igaro dan bizi gaiztoaren utzikiak eta kutsuak kentzeko. Bigarrena, anima tentazioen kontra indartzeko. Hirugarrena, gorputzari, baldin badagokio, osasuna emateko.

G. Zertako da ordena sakramentua?

E. Eliz-gizonak, esan nai det, apaiz mezatako, diakono, ta subdiako-noak konsagratzeko ta ordentzeko.

G. Zertako da ezkontzako sakramentua?

E. Ezkontzeko, ta ezkonduai grazia emateko, alkarren artean bizi ditezten pakean ta aurrak azi ditzaten zerurako.

Pekatu burutarrak dirade zazpi.

Lenbizikoa, goiteria, urgulleria, edo soberbia. Bigarrena, berguzia, edo abarizia. Hirugarrena, arageia, edo lujuria. Laugarrena, ira, irakundea. Bostgarrena, eztarguoa, edo gula. Seigarrena, ondama, bekaitza, edo inbidia. Zazpigarrena, nagitasuna.

G. Zergatik deitu dituzu pekatu burutarrak, geienean eriozkoak derizten zazpi pekatu oriek?

E. Deritze burutarrak zerren beren burutik bezala besteak jaiotzen diran, eta zerren diraden beste pekatuen iturri, ta sustraiak. Eta deitzea eriozkoak ez letorkiote ain ondo, sarritan eztiralako benialak baizen.

G. Noiz dira eriozkoak?

E. Jainkoa ta lagun urkoa onestearen kontra diranean, edo karidatea austen danean.

G. Noiz dira horien kontra?

E. Noiz eta Jainkoaren edo Elizaren aginteren bat gauza grabean ausitzen dan.

G. Zer da goiteria, edo soberbia?

E. Besteak gallentzeko gurari erabageko bat.

G. Zer da berguzia, edo abarizia?

E. Ondasunen gurari erabageko bat.

G. Zer da arageia, edo lujuria?

E. Gorputzaren atsegin zikiñen gurari erabageko bat.

G. Zer da ira, irakundea?

E. Mendekatzeko gurari erabageko bat.

G. Zer da eztargoa, edo gula?

E. Jateko ta edateko gurari erabageko bat.

G. Zer da bekaitza, edo inbidia?

E. Besteren onaren damua.

G. Zer da nagitasuna?

E. On egiteko desalaia, ta atzerapena.

Zazpi bizio oien kontra dira zazpi birtute.

Goiteriaren, soberbiaren, kontra, humiltasuna. Berguziaren, abariziaren, kontra iyorinaia, liberaltasuna. Arageiaren, lujuriaren, kontra kasteda, garbitasuna. Iraren kontra, osartea, paziencia. Eztargorearen, gularen kontra gogiroa, tenplanza. Bekaitzaren, edo inbidiarearen kontra, oneguna, karidatea. Nagitasunaren kontra, ekinia, lasterrera.

Iges-egin bear diotegun animaren etsaiak dira hiru.

Lenengoa, mundua; bigarrena, demonioa; hirugarrena, aragia.

G. Nola iges egiten da mundutik?

E. Aren andiusteen ta arrotasunen ajolezteaz, ta meziprezatzeaz.

G. Nola iges-egiten da demonioagandik?

E. Otoitaz, orazioz, ta humiltasunez.

G. Nola iges-egiten da aragiagandik?

E. Aragi hildurakin, beillakin ta barauakin. Au da etsairik andiena, zeren guregandik aragiari ezin aldeeragin diogu; munduari ta demonioari, bai.

Birtute theologalak edo Jainkoaganonzoak dira hiru.

Lenbizikoa, fedea. Bigarrena, esperanza. Hirugarrena, karidatea.

Birtute kardinalak edo opotarrak dira lau.

Lenbizikoa, prudenzia, edo zuhurzia. Bigarrena, justizia, edo eka-doia. Hirugarrena, fortaleza, edo sendagalla. Laugarrena, tenplanza, edo gogiroa.

Gorputzaren zentzuak edo bidadiak dira bost.



Lenengoa, begiz ikustea. Bigarrena, belarriz enzutea. Hirugarrena, aoaz gusto artzea. Laugarrena, sudurraz usai egitea. Bostgarrena, eskuz utkitzea, ikutzea.

G. Zertako Jainkoak eman dizku zentzuak, ta beste gañerako mienbro, edo bizakaia?

E. Guziakin serbi-genezan gauza guzietan.

Animaren potentziak ahalak edo almenak dirade hiru.

Oroitza, adimentua, eta borondatea.

G. Zertako Jainkoak eman zigun oroitza?

E. Beraz ta bere ongitez oroitze gindezen.

G. Zertako Jainkoak eman zigun adimentua?

E. Gure Jauna ezagutzeko eta argan pensatzeko.

G. Zertako eman zigun borondatea?

E. Onik andiena bezala bera ama dezagun, ta beragatik lagun urkoa.

Espiritu Santuaren doaiak dira zazpi.

Lenbizikoa, jakintasanaren doia. Bigarrena, adimentuaren doia. Hirugarrena, konsejuaren doia. Laugarrena, zienziaren doia. Bostgarrena, sendagallaren doia. Seigarrena, piedadearen doia. Zazpigarrena, Jainkoaren beldurtasunaren doia.

Espiritu Santuaren frukuak dira amabi.

Lenengoa, karidadea, onesguna. Bigarrena, pakea. Hirugarrena, biotzandikera. Laugarrena, ongitea, benignidadea. Bostgarrena, fedea, sinismena. Seigarrena, kontinenzia, edo naikundeak hilduratzea. Zazpigarrena, espirituko gozaldea. Zortzigarrena, osartea, pazientzia. Bederatzigarrena, ontasuna. Amargarrena, mansotasuna. Amaikagarrena, modestia. Amabigarrena, kastidadea.

Doatsutasunak edo zorionak dirade zortzi.

1. Zorionekoak espirituz pobre diranak, zerren aiena dan zeruetako erreinoa.

2. Zorionekoak mansoak, zerren oiek menpetuko duten lurra.

3. Zorionekoak negargilleak, ezen konsolatuak izango dira.

4. Zorionekoak justiziaren gose ta egarri diranak, ezen aseak izango dira.

5. Zorionekoak urrikaritsuak, zeren urrikarituak izango diran.

6. Zorionekoak biotz garbikoak, zeren Jainkoa ikusiko duten.

7. Zorionekoak pakezaleak, zeren Jainkoaren seme izendatuko diran.

8. Zorionekoak justiziagatik persegituak, zerren aiena izango dan zeruetako erreinoa.

G. Zer esan degu orain?

E. Zortzi zorionak, edo zortzi doatsutasunak.

G. Zer gauza dira doatsutasun oiek?

E. Espiritu Santuaren birtuteen ta doaien egitekorik onenak.

G. Nor dira espirituz pobreak?

E. Ez honrarik nai dutenak, ez eta aberastasun andirik, ta adiñonik.

G. Nor dira mansuak?

E. Irarik ez dutenak, ez eta aren mugidarik.

G. Nola menperatzen dute lurra?

E. Beren buruen jabe izanikan.

G. Nor dira negargilleak?

E. Atsegin, zillegiak ere, uzten dituztenak.

G. Nor dira justiziaren gose ta egarri diranak?

E. Aalegiñez beren egokaria guzitan egiten dutenak.

G. Nor dira urrikaritsuak?

E. Arrotzakin ere txitez beraa diranak.

G. Nor dira biotz garbikoak?

E. Beren biotzetako naikari gaitzak hilduratzen dituztenak.

G. Nor dira pakezaleak?

E. Beren buruai ta besteai pake emalleak.

G. Nor dira persegituak justiziaren amorez?

E. Sendo ta fermu daudenak guzitan, persegituak izan arren.

G. Eta oiek zergatik deitzen dira doatsutasunak, edo zorionak?

E. Zeren oietan dagoen oraingo bizitzaren doatsutasuna, ta gerokoren ustea, ta esperanza. M. Ene seme, Jainkoak arasye garamatziela guziok. Amen.

Oñaraño da Aita Asteteren katezismoa edo doktrina ikasteko bidea



Aitormen jenerala

Aitortzen natzaio Jainko aalguzikoari, Maria beti Birjina doatsuari, Migel Arkanjel doatsuari, Juan Bautista doatsuari, Jondo[ne] Pedro ta Paulori. Jondone guziaz, eta zuri, ene Aita, pekatu egindedala geiegi, gogoz, hitzez, ta egitez, ene faltaz, ene faltaz, ene falta andiaz. Argatik eskatzen diot Maria Birjiña doatsuari, Migel Arkanjel doatsuari, Juan Bautista doatsuari, Jondone Pedro, ta Paulori, eta Jondone guziaz, eta Zuri, ene Aita, erregu dezazuten nigatik gure Jauna, ta Jainkoari.

Izare santuaren otoitza edo orazioa

Gure Jauna ta Jainkoa, zure pasioaren señalear utzi ziñizkuna izare santuan zeñean bildu zuten zure gorputz santua, Josefek jatxi zuenean gurutzetik. Iguzu arren grazia, zure eriotz eta obiaren bidez eraman gaitzaten pizteko gloriara, zeñean bizi zeran, ta erregiñatzen dezun Aita Jainkoarekin Espiritu Santuaren batasunean, Jainkoa mendetik mendera. Ala biz.

Nere Jesu-Kristo Jauna, Jainko ta gizon egiazkoa, nere Kriadore ta Redentorea, zu zeranagatik ta zeren amatzen zaitudan gauza guzien gañean; damu det, Jauna, damu det biotz guzitik zu offendituaz proposito firmearekin ez gu[e]lago offenditzeko, ta pekatuaren bide guzietatik aldegitoko nere pekatuak konfesatzeko ta ematenzadan penitentzia egiteko. Eskeintzen dizut nere bizitza, obrak ta nekeak nere pekatuen satisfazioan; ta nola eskatzen dizudan ala konfiatzen det zure ontasun ta miserikordia fingabea barkatuko dizkidatzula zure odol prezioso, passio, ta eriotzagatik, ta emango didazula grazia, bizitza obetzeko, ta zu serbitzen irauteko eriotzako orduraño. Amen. Ala biz.

FIN